


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Uztarriak eta
udalak akordioa
diru laguntzen
arloan (3-5)




Hilabetekaria • 2002ko abendua • IV. urtea • 35. zenbakia • www.uztarria.com



IKERLARI NEKAEZINA

Enrike Zurutuzak egunero dihardu lanean bere 85 urterekin (24-28)

**BERTAKO
HARAGIA...
...GURE
HARATEGIETAN**



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 64 62
AZHOITIA
Jose Arizabalo, 21 Tel.: 943 151 382
AZPEITIA

YATSO

EDUARDO BERSATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onena
San Inazio Kaleko 12an
Urrut.: 943 81 14 98

MATXIN
bestada adela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

**Harategi
Odriozola**
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORUMILDEGUA, 4
TFNOA 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA
KALITATEZKO
HARAGIA
JUSTINZURIKO ERREBAI
TFNOA: 943 81 1071

Zazpi
azpeitiar
gazte kartzela
arriskuan
(12-13)

Egaña
gozotegiak
mende bat
bete berri du
(18)



Lizarralde,
New York-eko
maratoian;
Behobian
148! (33-34)



Klik! Pumori.
Urte bat,
bi instant
(42-44)

uztarria

Berandu bada ere, Uztarriak azkenerako
2002rako eskatutako udal diru laguntzak jasoko
ditu, bi parteek akordioa lortu berri dutelako

UZTARRIAK ETA UDALAK AKORDIOA LORTU DUTE



Uztarria

Ezin zitekeen bestela: Uztarriak eta Azpeitiko Udalak akordioa lortu dute 2002. urteko diru laguntzetarako, eta akordioaren arabera, Uztarriak bere komunikazio proiekturako aurtengorako udalari eskatuak zizkion 26.444 euroetatik (4.400.000 pezeta) orain 24.040 euro (4.000.000) jasoko ditu; beste 2.404 euroez (400.000 pezeta) urtearen bukaeran hitz egingo dute bi parteek eta aukera egongo da diru kopuru hori hurrengo urteko aurrekontuetatik bideratzeko. Era berean, hurrengo urteetako hitzarmenaz "azkar" hitz egiten hasteko geratu dira Uztarria eta udala.

Akordioa lortu bada ere, Uztarria Kultur Koordinadorak beste jarrera bat hartu eta gaia pixka bat kalera atera behar izan du 2002. urterako bere komunikazio proiekturako eskatutako udal diru laguntzak jaso ahal izateko. Izan ere, nahiz eta Uztarriak aurtengo urtarrilean bertan publiko egin komunikazio proiektua (herri aldizkari berri-tua eta mardulagoa, www.uztarria.com berria eta beste bi liburu biografiko) eta proiektuon berri udalak berak iazko urtearen bukaeran izan, udalak urrian eman zuen diru laguntzen eran- ▶▶

KOMUNIKAZIOA. Aldizkaria, uztarria.com eta biografiak.

► tzuna, eta hauxe izan zen: Uztarriak eskatutakoa baino hamabi mila euro gutxiago (bi milioi pezeta gutxiago). laz baino gutxiago... Horren aurrean, Uztarria harrituta geratu zen, otsail aldera Kultura Batzordearekin egindako bileraren eta gero egindako beste bileren ondoren ez zuelako horrelako erantzunik espero. Uztarriak, urrian Kultura Batzordearekin izandako bileran, bere balorazioa eman zion udalari eta, era berean, erabakiaren arrazioen berri idatziz emateko eskatu zion, baina ez zuen erantzunik jaso.

BATZARRA. Horrek Uztarria egoera ekonomiko larrian jarri zuen, normala zen bezala urri-rako 2002ko gastuak eta inbertsioak eginak zituelako, eta egoerari konponbidea ematearren, bazkideen urteko batzarre premiazkoa deitu zuen azaroaren 7rako. Bertan egin zuen udalarekin izandako hartu-emanen azalpena eta jasotako erantzunaren balorazioa: nahiz eta Uztarriaren komunikazio proiektua aurrera doan, udalaren erantzuna "atzeratuta" egitea zela; udalak "forma eskasak" erabili zituela erantzuna urrian emateagatik; udalak ez zituela kontuan hartu Uztarriak hitzarmenerako proposaturiko beste puntuak: beste lokal bat, udal iragarkiak, udaleko komunikazio arduraduna...; udalak Uztarria behar bezala ez lagunduz ez zuela betetzen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak zioena: "Azpeitian euskararen zabalakundea arlo guztietan erabatekoa izan dadin behar adina baliabide eta tresna sortu eta garatu"... Ordu arte Uztarriak, herri aldizkariaren bitartez, gai

KOMUNIKAZIÓ PROIEKTUA

Aurrera doana, babestuta

- **HERRI ALDIZKARIA.** Di-seinu berritua du 2002. urte hasieratik, kazetaritza freskoagoa eta modernoagoa, hilero 12-16 orrialde gehiago...
- **UZZARRIA.COM.** Martxan 2002ko urtarrietik, egunero 900 bisita ditu, oso partehartzailea da, adituen oso kritika onak jaso ditu...
- **BIOGRAFIAK.** lazko bi liburua (*Joxe Takolo* eta *Angel Otaegi*) agortuak daude. Aurten jadanik *Imanol Elias* argitaratua du Uztarriak; las-ter *Patxi Altuna* aterako du.
- **BAZKIDEAK.** Uztarriaren komunikazio proiektuak dagoeneko 608 bazkide ditu. Oso kopuru altua da; herritarrek proiektua babesten duten seinale. Bazkideen kopuruaz gain, beste 1.100 harpidedun ere baditu Uztarriak.



Uztarriako bazkideen batzarra azaroaren 7an egin zen. / NEREA UZARRIA

HITZARMEN BERRIRAKO

Proposamen nagusiak

- **UDAL DIRU LAGUNTZA.** 2003an Uztarriaren aurrekontuak antzekoak izango dira. Udal diru laguntzak ere bai, beraz.
- **BESTE LOKAL BAT.** Uztarriak beste lokal bat eskatu dio udalari, egungoa ez delako egokiena (txikia geratu zaigu, ez du leihorik, oso hotza edo oso beroa da, ez dago lehen pisuan...).
- **UDAL INFORMAZIOA.** Uztarriaren aldizkarian eta webgunean udaleko erabakien, eguneroko kontuen eta proiektuen transmisioa ahal den modu onenean egiteko, udalak arduradun bat izendatzea eskatu du Uztarriak.
- **UDAL IRAGARKIAK.** Udaleko eta udal erakundeen iragarkiak modu erregularrean sartzeari Uztarria herri aldizkarian (hilero 6.500 irakurle ditu).

hau puntu batzuen bidez baino ez zuen kaleratu, eta bazkideei ere berripaper bat bidali zien. Batzarrean hori guztia eta Uztarriaren komunikazio proiektuaren lorpenak azaldu ondoren, bazkideek harridura agertu zuten eta udalaren erabakia "ulertezina" zela zioten.

Nahiz eta unea zaila zen, Uztarriako Talde Eragileak bazkideei esan zien ez zegoela komunikazio proiektua aldatu beharrik, "herriak erabat babesten duelako", bazkideak jada 600 pasatxo direlako, publizitatea goraka doalako..., "eta udalak errealitate berrira egokitu beharko du".

Konponbidearen bidean, azken aukera gisa udaletxean, Uztarria Kultur Koordinadorako talde guztien izenean ez ezik, herriko euskara, kultura, informazio eta hezkuntza arloetako taldeen eta norbanakoen sinadurekin moztio bat sartzeari erabaki zen, udalari Uztarriak 2002rako komunikazio proiekturako eskatutakoa emateko esanez. Hala ere, berriro udaleko ordezkari politikoengana jotzea erabaki zen.

AKORDIOA. Uztarriako Talde Eragileko ordezkariak azaroaren 7az geroztik hartu-emanak izan dituzte EAJrekin, Sozialista Abertzaleekin eta EArekin. Sozialista Abertzaleak taldea ados zegoen Uztarriaren planteamenduekin, hasieratik bezala. EAJK eta EAK —beraiek osatzen dute udal gobernua— iritzia aldatu dute eta azkenean lortu da Uztarriaren eta Azpeitiko Udalaren akordioa.

Orain hurrengo urteetako hitzarmenaz hitz egiteko garaia heldu da.

www.uztarria.com

zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da.

UZTARRIAREN DIRU LAGUNTZAK DIRELA ETA

Azpeitiko Udala eta Uztarriaren komunikazio proiektua. 2002ko diru laguntzak.

- Azpeitiko Udalak 2002an oso berandu eman dio erantzuna Uztarriari. 2003-an gertatuko ez den konpromisoa azaltzen du.
- Uztarriaren komunikazio proiektuaren aurrekontua 2001etik 2002ra bikoiztu egin da.
- Uztarriak hasieratik izan du Udalaren eta erakunde publikoen (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) babesa.

- Udalak diru dezente eman dio Uztarriari hasieratik eta kopuru hau goraka doa. 2002an Uztarriaren Komunikazio Proiektuaren %28 subentzionatuko du.

- Azpeitiko Udalak betetzen du martxan jarri duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioena: "Azpeitian euskararen zabalkundea arlo guztietan erabatekoa izan dadin behar adina baliabide eta tresna sortu eta garatuko ditu".

- Azpeitiko Udalak ez du ito Uztarria

(dirua, lokala ..) eta euskara.

- Azpeitiko Udalak errespetatzen du Uztarria.

- Azpeitiko Udalak errekonozitzen du Uztarriaren lana euskararen normalizazioan.

- Uztarriak euskara eta euskal kultura bultzatzea eta herriko informazioa zabaltzea ditu helburu. Azpeitiko Udalaren iritziz, Uztarria autonomoa den unetik eta herrikoa nahi badu izan zabaltasuna eta inpartzialtasuna bermatu behar ditu.

KOMUNIKABIDEEN ARLOA, ESTRATEGIKOA

Asko luzatu da Uztarriaren udal diru laguntzen kontua, udalak berak urrian eman zuelako erantzuna, baina azkeneko asteetan bi parteok hitz egin aritu gara eta akordioa lortu dugu. Berri ona da hori, beraz, herriarentzat, Uztarria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektua (herri aldizkaria, uztarria.com eta biografiak) azpeitiarrentzako tresna informatiboak direlako azken batean. Dena den, Uztarriak, udal diru laguntzen zenbatekoari baino gehiago, oinarriko irizpideei begiratzen die, eta gure ustez, udalak ez du behar bezala jokatu aurrean, horrelako proiektu bat ezin delako zalantzan jarri hasieran eta gero kolokan.

Izan ere, oso kontuan hartu behar da herriko euskara eta kultur taldeek sortutako proiektua dela Uztarria Kultur Koordinadora (1998an sortu zen), hiru ardatzetan finkatua: euskara, kultura eta informazioa-komunikazioa. Betiere lehen zegoen egoera hobetzeko sortu zen, ez inoren kontra. Eta hobetu da Azpeitiko egoera azkeneko lau urte hauetan; ez, jakina, Uztarriaren lanagatik bakarrik. Uztarriari dagokionez, informazioaren alorrean, esaterako, herri aldizkaria sortu dugu, uztarria.com, liburu biografikoak... Beraz, uste dugu udalak errekonozitu eta baloratu egin behar duela hori. Baina, azken batean, ez Uztarriaren lana bakarrik, baizik eta herrigintzan diharduten herriko taldeek

egiten duten lana ere bai, eta babestu. Zoritxarrez, ez dira guztiak behar bezala errekonozitzen, eta horren adibide da hainbat talderen egoera larria.

INFORMAZIOAREN GIZARTEAN.

Euskara eta kultura herri honen zutabe nagusi badira, euskarazko komunikabideen arloa estrategikoa da. Estrategikoa, batetik, euskararen hedapena eta normalizazioa laguntzen duelako; eta, bestetik, herriko informazioan herritarren erreferentzia informatiboak euskarazko hedabideak izateak esan nahi duen guztiagatik, noiz eta gaur egun, informazioaren gizartean komunikabideek duten garrantziarekin eta eraginarekin.

Uztarria euskarazko komunikabideak eta tresna informatiboak sortzen ari da Azpeitian: lehen esan bezala, Uztarria herri aldizkaria, uztarria.com eta herritarrei buruzko liburuxka biografikoak. Herriak onartu eta babestu egin ditu tresna informatibo horiek (Uztarriak, esaterako, oraintxe bertan 608 bazkide ditu). Euskarari egindako ekarpenaz gain eta herritarren erreferentzia informatibo garrantzitsua euskarazko hedabideak izateaz gain, herritarrei zerbitzua ematen zaie komunikabide horien bidez. Eta zerbitzu hori ere errekonozitu egin behar da. Hiru errekonozimendu mota, beraz: euskararen normalizazioaren aldeko lana, erreferentzia euskaraz-

ko hedabideak izatea, eta herritarrei egindako zerbitzu lana.

Herriak komunikazio proiektu bat eduki behar du, euskarazkoa eta herritarra, eta Uztarria ari da lantzen eta garatzen proiektu hori, oinarri sendo batekin. Eta oraingo tresnez gain, beste proiektu batzuk ere baditugu biharko egunerako. Hala, kontuan hartzen ari gara herriko informazioa euskaraz ez dela egunero jorratzen (uztarria.com-en, salbu), eta hor pauso handiak emateko borondatea eta asmoa du Uztarriak. Horretaz gain, literatura arloa ere landuko dugu datorren urtetik aurrera, eta beste asmo batzuk ere baditugu.

HITZARMENA.

Oso garbi baitugu: arlo hau, euskarazko komunikabideena, estrategikoa da Azpeitian eta, oro har, Euskal Herrian. Horregatik, berak izaera herritarra izateaz gain, proiektu honek erakunde publikoekin hitzarmen sendoa eta iraunkorra izatea eskatzen du. Ezin dugu urtero aurrean bezala ibili, euroak gora behera. Kontua ez da ekonomikoa (soilik), irizpide eta jokabide garbi batzuk daude honen oinarrian. Eta apustua estrategikoa da, azken batean. Uztarria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektuak azpeitiarren babesa eta konfiantza baduela uste dugu, eta orain, lasai hitz egin eta hitzarmen iraunkorra eta sendoa nahi dugu Azpeitiko Udalarekin. ●

amuko zubitik Mikel Arregi



GAZTE IZATEAREN ZAILTASUNAK

Gazte izatea ez da batere erraza *botere faktikoen* dena kontrolatu nahi duten lekue-tan. Esaterako, urtetan gurasoenean bizi diren gazteek etxerik ezin dute eskuratu, *bo-teretsuen lurraldean* etxebizitza politika ez baitoa beharrak asetzera, poltsiko batzuk be-tetzera baizik. Eta normaltzat jo arren, onartezina da gaur egun horrelakoak gertatzea.

Baina, batez ere, gazte izatea ez da batere erraza botereak ezarritako ideologietatik kanpo arituz gero. Izan ere, hala aritzen denak egindakoa oso garesti ordaintzeko arriskua du. Instituzioek ezarritako jokamolde eta ideiei men egingo dieten gazteak sortu nahi dira. Gazte kritikorik ez da komeni (agintearerikiko kritikoa, alegia). Baina ez gazteak izanagatik bakarrik; batez ere *kritikoa* izanagatik. Izan ere, kritikoa denak errealtatea aldatu nahiko du, eta batzuk ez dute errealtatea zalantzan jartzetik ere nahi. Baina batez ere ez da ko-meni horrelako gazterik, etorkizunean hazi eta herriko oinarri izango direlako: *boteretsuen lurral-*

dea zalantzan jarriko luketen gizon eta emakume arriskutsuak.

Hala, instituzioen kontrako norabidean zerbait egiten duen gazteari egurra emateko erabakia hartu dute *botere faktikoen*: preso-en eskubideak errespetatzeko eskatzen ari ziren gazte batzuek beste batzuekin izandako eztabaidak direla eta (ertzainak, bizkarzainak...), kartzela zigor eskaera. Gazte lokala eskatzen ari ziren gazte batzuei, beste hiritar batzuekin borrokan egiteagatik, kartzela zigor eskaera. Gazteok ez dituzte epaitzen egin dutenagatik. Egindakoa zeren alde egin duten, hor dago gako. Gazte lokalaren edo preso-en eskubideen alde *borrokan* egin beharrean udaletxearen alde borrokan eginez gero, zigorrik ez. Edo kirol talde baten kalterako aritu den arbitro bati atxikarekin burua irekiz gero, zigorrik ez.

Azpeitiko 7 gazte daude kartzelara joateko arriskuan. Baina ez dira egindako gauzak epaitu, gertaeren atzean dauden ideiak baizik; boterearentzat hain beldurgarri diren ideiak.

azketako ude Kepa Susperregi



HAUTSAK HARROTU DITUEN IDATZIA

Hautsak harrotu ditu azken egunotan Espainiako Gotzainen Batzarrak kaleratutako *Valoración moral del terrorismo en España, de sus causas y consecuencias* izeneko idatziak. Espainiako Gotzainen gehiengo zabal batek onartua, pozez hartu du hainbatek eta hainbatek, baita penaz ere zenbaitek.

Kaleratu eta bi egunera, gure irakasle izandako batek, gure arteko egunkari batetan, bere iritzia labur azaltzekotan hitz hauetan laburbilduko lukeela zioen: "*Texto moral sólido, pero políticamente algo desbocado*".

Iritzi hori jaso ondoren eskuratu dut testu osoa. Eta irakurri ondoren, zer esan?

ETAren gaitzespen garbia egiten da bertan. Baita bere babesle eta laguntzaileena ere. Baina hau ez da berria. Behin baino gehiagotan egin izan du hori Espainiako Gotzainen Batzarrak berak, eta zer esanik ez Euskal Herriko

Elizbarrutietako Gotzainen ere. Baina azken hauen esanen aipamenik ere ez da egiten. Ez zen hori izango idatziaren helburua, baina aukeratzeko bat galdu dela iruditzen zait.

Bosgarren atalean agertzen da eztabaida sortu duen hainbat irizpide. Nire iritzian, ikuspegi moralak gainditu eta iritzi eta aukera politiko-en alorrean murgiltzen direnak dira. Erantzunik gabe geratzen da, gainera, hainbat kuestio: Ez al da ba moralak, etikoa, estaturik gabeko nazioen independentziaren aldeko aukera? Eta helburu hori lortzeko asmoz, baldintza etiko guztiak errespetatuz, egin daitezkeen ahaleginak? Behin betikoak ote gudanaino iritsi diren Estatuak?. Alda ezina ote gure arteko harremanak antolatzeke ezagun dugun marko juridikoa?.

Ez dut besterako aukerarik. Eguberri eta Urteberri denoi, gainean ditugu eta.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

KOSKEN

KOSKA

Loiolabideko errotondako lanak direla medio, ohi baino askoz auto gehiagoko dabil Loiolako atzeko bidetik, baina, hala ere, ez dituzte kendu bertako koskak. Hau da, ez dituzte kendu 1.300 metro horietan dauden bederatzi koska txerri horiek. Eta horrek zer pentsatua ematen du: edo bi aldiz pentsatu gabeko erabakia da edo bi aldiz pentsatutakoa da. Aurreneko kasua dela pentsatuz gero, gidarien ongizatea kontuan hartu gabeko erabakia dela pentsa daiteke, maldizioka bukatzen direlako 1.300 metroak. Eta bigarren kasua dela pentsatuz gero, erabakiaren atzean interes bat gordetzen dela pentsa daiteke. Non ote dago kosken koska?

Eta pentsatzen hasiz gero, ez naiz akordatzen saihebidetako maketatzen koskarik ikusi nuenik. Ez nintzen ondo fijatuko.

bota bertsue

Iñigo Gorrotxategi

SANTO TOMASAK

Nire ustetan euskal jendea daukagula nahiko grabe!

Esaten dute animaliak torturatzen ai dirade!

Plazan txerria jarri nahi eta arazo larriak daude.

Santo Tomasak ez dira ezer plazan txerrikan gabe.

Txorixo eta taloen bila joaten plaza erdira:

aurten berriro gure Xebastian gaiak ematen ari da, lau bertsolari kantuan eta beste lau han begira...

Gauean bertso gehiago eta hobeak izango dira.

Joxe, nik esplikatu laikeizut hau, e
oin dala aspaldi baten, bazean
Moises izeneko tipo bat...
otarra baten sartu zeben...



ANTZERKIZALEA. Azpeitiarrek erakutsi dute aurtengo Euskal Antzerki Topaketetan ere antzerkizale amorratuak direla, ikusentzule ugari izan baita Antzerki Topaketetako XX. edizioan.



ARRATOIAK. Azken asteotan arratoi ugari dabilela-eta zenbait kaltetako eta auzotako bizi-lagunak kexu agertu dira. Norbaiten ardura izango da era honetako kexuei erantzutea, baina...



ERROTONDA. Auzarazako errotondako lanak direla-eta arratsaldetan udaltzainak hurbiltzen dira trafikoa zaintzera. Baina eguerditan ez da inor izaten trafikoa zaintzen. Zergatik?

uztarria.com

badu keje!

Udalatzaingoan jarrera desegokia

Udaltzainak hor dabilta, herrian motorzale bat noiz ikusiko oker bat egiten, gelditu eta isun bat jartzeko. Eta bitartean, hor dabilta motorrak osten.

Azkenengo hiru hilabete hauetan sei motor ostu dituzte Azpeitian. Hau ez da batere gauza normala. Gainera, gero eta sarrago eta gero eta motor gehiago osten dituzte. Baina udaltzainei axola ez zaienez, hor dabilta. Albiste oso penagarria da, bai motorzale eta bai motorzaleen familientzat. Horrenbeste ordaindutako motorra, eta gero batere gabe.

Alain Arrieta

Motoen inguruan

Bi hitz bakarrik Alain Arrietaren gutunari erantzuteko. Denok gaude ados: motorrak lapurtzea ez dago ondo. Eta esan nahi dut udaltzainei asko axola



Saihesbideko lanak direla eta

Bi proposamen Azpeitiko udaltzaintzako: zergatik ez duzue irekitzen Sanjuandegiko bide zaharra Loiola aldetik herrira sartzeko? Eta atzeko bide berria, hau da, Barrenetxe aldekoa, Landeta aldera edo herritik kanpora joateko erabiltzeko moduan jartzen? Honekin saltsa gutxiago egongo litzateke. Zergatik ez zarete egoten Betharrametako bidegurutzean (trafiko handiko orduetan) trafikoa pixka bat zaintzen? Zenbait ordutan igerileku aurretik plaza aldera autoz joateko hogeita minutu behar izaten baitira.

Aitor (uztarria.com)

zaizkigula gauza hauek, Alai- nek uste ez badu ere. Moto bat lapurtzea ez dut uste ikaragarri zaila denik, eta behin lapurtu eta gero moto hori beste hiri batera eramaten badute, Azpeitiko Udaltzaingoak ezer gutxi egin dezake moto hori aurkitzeko. Udaltzainek eta ertzainek ahalegin guztia egiten dugu, baina ezin dadenera iritsi.

Bestetik, Alain Arrietari esan nahi diot, ahalegin guztia egingo dugula motozaleak behar duten bezala ibili daitezen gure herriko kaleetan, denon segurtasunagatik. Gaizki dabiltzanei isunak jartzen jarraituko dugu, eta jada udal ibilgailu biltegira motorrak erretiratzeko hasi gara, matrikularik gabe edota seguru- rik gabe gidatzeagatik, adibidez.

Baita ere, poztan naiz ziklo- motorren gaiarekin jendea hain konzientziatua ikusteaz. Gure aldetik, kaleak oraindik ere seguruagoak izateko ahalegin guztia egingo dugu.

Jose Angel Aristi

(Azpeitiko udaltzainburua)

akullue



Leire Ostolaza

'AZPEITIA.NET', UDALAREN WEBGUNEA

Hilean behingo nire lantxoia zeri buruz egin asmatu ezinik nebilela, Azpeitiko Udaleko webgunean (www.azpeitia.net) sartu naiz kuriositatez eta nire lehenengo ustekabe desatsegina hasierako orrian "Azpeitia en pocas palabras" irakurtzea izan da.

Behin webgunearen sarrerako orrian euskarazko bertsioa aukeratu ondoren, kulturako sailean sartu naiz. Eta jakin dut Azpeitiko kulturaren osagaiak maiatzean musika, uztailean folklorea, udazkenean abesbatzak eta udazkenean antzerkia direla. Informazio honek ez dakit mesede handirik egiten dion herriaren irudiari.

Azpeitian musika, literatura, bertsolaritza, argazkigintza, pintura, zinema, dantza eta abar luze bat urteko hilabete guztietan izaten ditugu, zorionez. Eta herri bat kultura aldetik bizia izango bada ezin ditu udalak kulturaren mapatik desagertarazi berak antolatzen ez dituen kultur ekitaldi guztiak. Hala ere, udalaren beraren webgunea izanik, berea izango da erabakiaren ardura.

Kontuak kontu, Azpeitiko Udalaren webgune horretan sartzten den kanpotarrak Azpeitian gehingoak gazteleraz hitz egiten duela pentsatuko du, eta hori ez da egia.

inkestie

Santotomasak gustuko al dituzu? Baserritarrez janzten al zara?



Ainhoa Otegi

(langilea)



"Bai, Santotomasak gustatzen zaizkit. Egun osoko festa herrikoiak direlako gustatzen zaizkit Santotomasak. Baserritarrez ere janzten naiz. Garai batean janzteari utzita egon ginen, baina azken urteetan lagun guztiak janzten gara".

Maixel Aizpuru

(Etxekoandrea)

"Oso gustoko ditut Santotomasak. Santotomasetan kalean

alde eta kontra

GAIA: Era honetako Antzerki Topaketen alde edo kontra zaude?

XX. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK SOREASUN

ALDE. 2001. urtean Kultura saila hartu nuen eta burubelarri ekin nion lanari. Kultur arloko zenbait ekitaldi aski ezagunak zitzaizkidan, horien artean Antzerki Topaketak. Esan bezala, Antzerki Topaketetako programazioan sartu nintzenez hainbat aldaketarekin aurkitu nintzen: alde batetik, Zelaitxo itxi egin zen, eta, ondorioz, Soreasu zinema aretoa gelditzen zitzaigun. Eta bestetik, lehenengo urtea izaki, ni neu nahiko galdua sentitzen nintzen.

Gaian pixka bat sartzeko, aurreko urteetako programei erreparatzen hasi nintzen; eta, orduan, nolabaiteko laburpen bat egitea otu zitzaigun. Euskal Antzerki Topaketen laburpena erakusketa baten bidez adierazi zen Soreasun.

Programazioari dagokionez, hainbat zalantza izan genituen, baina trantzisio garai batetan murgildurik geundenez, zenbait atal berriekin probatzea interesgarria izan zitekeela ikusi genuen. Horrela, iaz antzerkia eta antzerkiarekin nolabaiteko lotura duten emanaldiak ikusi ziren. Topaketen amaieran balorazio bat egin eta garbi ikusi genuen herritarrak antzerki gosez geratu zirela, eta, gainera, hainbat programek ez zutela hain ondo *enkajatu*. Ondorioz, urte hasieratik planteamendu berriak egiten hasi ginen, eta iruditzen zait oraindik lan asko dagoela egiteko, nola gauden eta noruntz joan nahi dugun jakiteko.

Bestalde, Soreasu zinema aretoak bere mugak ditu, eta antzezlanak ekartzeko jantzi beharra zegoen; eta pixka bat ildo horretatik jarraituz, inbertsio hau egitea erabaki genuen. Ondoren, antzerki taldeekin elkartu eta ikusi genuen posible zela beraien antzezlanak Soreasun egitea, edo ez, eta honela borobildu dugu aurtengo programazioa.

AKTOREAREN EGUNA. Iaz ekin genion alor berrietako bat Aktorearen Eguna izan zen, eta, egun horri bultzada bat emanez, hobetzea lortu dugula ikusten dugu. Horretarako, ordea, ezinbestekoa izan da bai herriko antzerki taldearen beharra (eskerrik beroenak eman nahi dizkiet), eta baita beste hainbat herritarren partaidetza ere, hala nola, Musika Eskolako haurren abesbatzarena (hauei ere, nire eskerrik beroenak). Badirudi egun hau polita izan daitekeel; ondorioz, urte osoko lan batekin polita atera daiteke. Programazioari dagokionez, aukera zabala dugula iruditzen zaigu. Aurten herritarrak erantzun bikaina eman dutela ikusi da, eta hauenganako nire eskerrak ere azaldu nahi nituzke. Etorrizuz nean ere lan asko egiteko dagoela iruditzen zait eta, ahal bada, beti hobera egin behar dugu.

Aitor Gorrotxategi

(Udaleko Kultura batzordeburua)

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

1. GALDERA: Agen- da erabiltzeko ohi- turarik ba al duzu?

- Bai: %66
- Ez: %29
- Batzuetan: %5

Milagros Zendoia Azpeitia

(langilea)

“Festa politik dira Santotomasak. Baina, nik lana egin beharra izaten dut. Ni neu ez naiz baserriarrez janzten, sukaldean lanean egoten bainaiz egun horretan, eta lanerako ez baitzait batere erosoza egiten. Baina umeak urtero janzten ditut”.

Ane Goenaga

(langilea)

“Nik Santotomasetan lana egin behar izaten dut, baina

hala ere ondo pasatzen dut.

Santotomasak gustoko ditut, festa oso herrikoiak eta euskaldunak dirrelako eta festa goizean goizetik hasten delako. Baserriarrez urtero janzten naiz”.

Iñaki Etxeberria

(ikaslea)

“Gustatzen zaizkit Santotomasak. Egun guztiko parranda delako gustatzen zaizkit, batez ere, eta baita garai horretan Gabonetako oporrak hartzen ditugulako ere. Baserriarrez ez naiz janzten, ez zaidalako gustatzen, eta nire koa-drilan inor ez garelako janzten”.

egoten den giroa herriko giroa izaten da, eta asko gustatzen zait. Ni neu ez naiz baserriarrez janzten, baina umeak beti janzten ditut”.

Xabier Elorza

(langilea)



“Bai, gustoko ditut Santotomasak.

Festan bertan parte hartzen dudalako gustatzen zaizkit, Itsasi

Dantza Taldekook postua jartzen baitugu, eta ttuntturroekin ere ateratzen bainaiz. Normalean, urtero jantzi izan naiz baserriarrez festa hauetan”.

“Oraindik lan asko dago egiteko, nola gauden eta noruntz joan nahi dugun jakiteko”

“Topaketetako programazioari dagokionez, aukera zabala dugula iruditzen zaigu”

Aitor Gorrotxategi

“Azpeitiko euskal antzerki jaialdia diruz ongi hornitua dago, baina antzerki irizpidez, batere ez”

“Euskal kulturgintzaren barruan, arlorik umezurtzena antzerkiarena dugu”

Joxe Mari Karrere

ANTZOKIAK BETE, AMATEURRAK BOTA

KONTRA. Zaila da kultur ekitaldi bat antolatzea. Zailagoa antzerki jaialdia bada. Eta oraindik zailagoa euskaraz egin nahi bada. Zaila da baldin eta ekitaldi horrek eragina izatea nahi badugu. Zaila da, baldin eta kultur eta antzerki irizpide gutxiengo batzuk erabiltzen badira. Baina oso erraza da antzerki talde bat beste baten atzetik egitarau batean jartzea bada asmoa, eta horrekin antzokia betetzea baino beste helbururik ez dagoenean. Erraza da, dirua eskutan hartuta, bati eta besteari deitu eta egun bat hitzartzea. Erraza da antzerkiaren idearik ez denean, are gehiago euskaraz egiten den antzerkiaren ideia santurik ez dagoenean; eta okerrago, izan nahi ez denean.

Gaixotasun honek jota dago Azpeitiko euskal antzerki jaialdia. Diruz ongi hornituta, baina antzerki irizpidez batere ez. Eta nik ez dut antzerki irizpide jotzen antzokia derrigorrez bete beharra, antzokiak ez baitira egun batetik bestera betetzen, urtean zehar eta lan txukun baten ondorioz egiten den lanaren poderioz baizik. Joan den urteko isiltasunaren ondoren, aurten antzerkia itzuli da Azpeitiako herrira. Hilabetez behintzat. Hobe ezer ez edukitzea baino. Eta antzokia beteko zen, seguraski. Eta ikuslea pozik irtengo zen programazioarekin, ez baita makala eskaintza. Nahikoa al da hori, ordea? Nahikoa al da urtean zehar antzerki programazioari ez duen herria honekin asetu nahi izatea? Nahikoa al da Azpeitiko antzerki jaialdia indartzeko aurten osatu den programazioa? Agian

bai, atzetik helburu politiko batzuk besterik ez badaude; alegia, kultur politika baten justifikazioa bilatu antzokia betetz, geroago prentsaurreko batean gauzak zeinen ondo egin diren eta dena zer ondo pasa den irribarrez aldarrikatzeko, urte horretako balantzean kultur arduradunek gorantzako gezia jar dezaten, eta goikoen bizkar igurtziak jasotzeko. Agian norbaitek pentsatuko du horrekin euskal antzerkiari mesede egiten diola, eta kexatu baino eskerrak eman beharko genizkiola. Baina hori antzerkiaren ideiarik ez izatea da.

Azpeitiko antzerkiaren jaialdia jarraitu duenak jakingo du jaialdi hau euskaraz aritzen ziren talde afizionatuen erakusleho gisa antolatuta zela, antzerki profesionalari bidea itxi gabe, jakina. Euskal kulturgintzaren barruan arlorik umezurtzena antzerkiarena dugu, baztertuta eta ahaztuta, berezkoak zituen lekuetatik bidalia, Azpeitian bezala. Kalitate kontuak aipatzen dira, baina inork ez du kalitate parametro horiek igo daitezen laguntzarik eskaintzen, eta ez naiz ari diruaz bakarrik. Antzerkiaren harrobia den teatro afizionatua Marierrauskin gaixoaren antzera dabil gure frontoietan. Azpeitiko jaialdia, zor zaion errespetuaren ikurra izateko sortu zen. Gaur egun inkompetentziaren ikurra da. Gelditzen zaigun kontsolamendu bakarra programatutako lanak dira. Ez ditzagun horiek gal.

Joxe Mari Karrere

(Antzerki kritikoa eta ipuin kontalaria)

hausnartzen

GAIA: 'Kultura' Nolakoa da herriko kultur dinamika? Kultur etxea beharrezkoa al da? Beharrezkoa bada, nolakoa? Zeinentzat? Zer da kultura?...

Oharra: hurrengo zenbakitik aurrera 'udal hauteskundeak' gaiaren inguruan eztabaidatuko da; idatzi nahi duenak bidali artikulua

KULTURA IZAERA KRITIKO ETA PARTEHARTZAILEA OZEN ALDARRIKATU BEHAR DA

Kultura, edozein pertsona edo herriren garapen intelektual edo artistiko bezala azaltzen zaigu, motzean adierazita, edozein hiztegitan. Baina esaldi motz honen azpian eduki pilo bat adierazten dira, eta askotan guztiak ez dira kontutan hartzen. Azpeitian gertatzen dena adibide garbi bat iruditzen zait.

Gure herrian —beste herrietan ere antzera izan daiteke— kultura arte espresio ezberdinekin lotzeko joera dago, are gehiago udalaren aldetik. Eta gainera arte espresio hauek ere *konpartimendu estanko* moduan antolatuta daude, hau da, praktikan talde eta lokal ezberdinetan (rock taldeak Zubi Zar edo Urrestillan, Musika Banda Aitonenan, Itsasi bere lokalean...). Eta arte espresio hauen barnean, nolabait, udalaren errekonozimendua dutenak eta errekonozimendurik ez dutenak daude. Kasu askotan, udala eta espresio hauek lantzen dituzten taldeen arteko harremana lokal eta diru laguntzen gaia tratatzera mugatzen da.

Guzti honekin lotuta, ezarri nahi diguten kultur *uniformetasuna* egongo litzateke. Botere gune nagusietatik ezarri nahi diren baloreak transmititzeko erabiltzen dituzten bideak aztertu besterik ez daukagu. Eta baditugu horren adibideak ere gure herrian, eta garbiena: herritarrek kulturaren inguruan omen duten jarrera pasiboa litzateke. Hau da, gure artean aski hedatua dagoen ustea.

ARAZO DESBERDINAK. Herriko kultur egoeraren hausnarketa hemendik bideratzeak badu arrazoi argi bat, eta aspaldian honen inguruan herrian ditugun arazo ezberdinen giltzarrietako bat dela iruditzen zait. Ez bakarra, baina bai adierazgarria. Honekin esan nahi da:

- Kultura edozein pertsona edo herriren garapen intelektual eta artistikoa bada (edo izan badaiteke), argi dago Udalak (PNV-EA kasu honetan) kultura=arte bultzatzeak arrazoi garbia duela, kulturaren izaera kritikoa eta parte hartzailea baztertu nahi duela.
- Udalaren eta kultur taldeen harremana lokalaren eta diru laguntzen gaietara mugatzea (gehienetan behintzat) ez da kasualitatea. Udalari taldeok bere lokaletan isolatuta egotea interesatzen zaio, eta Uztarriaren bidez taldeok elkartzeko eta elkar-lanarako eman diren urratsak min handia eragin diete.
- Gazte Lokalaren auzian ematen ari diren arazoak (errepresentazioak barne) Udalak gazteen antolatze eta kultur dinamika alternatiboen bideari dion izuan kokatzen dira.
- Kultur etxearen auzian (Basazabalen aukera) udala ematen ari den atzerabidea nabarmena da. Proiektua, aurrera baino gehiago, atzera doa, udalak kontrolatuko ez duen kultur etxerik ez duelako nahi.
- Herri pasiboa garen sentazioa ere bultzatu egiten da. *Artetik* kanpoko kultur produkzioari ez zaio onarpenik ematen, eta izaera pasiboagoa duten arte dinamikak bultzatzen dira.



- Euskal Herriaren aurkako tresna bezala ere erabiltzen dute kultura herri honen izaera desagertarazi nahi dutenek, eta badirudi horren aurreko neurri bakarra eskuak burura ematea dela hainbat eta hainbaten erabaki bakarra, zer esanik ez Azpeitiko Udalarena.

Hauek eta honelako hainbat adibidek kultur dinamikak nondik nora joango beharko lukeenaren hainbat zertzelada ematen digutela iruditzen zait. Beharrezkoa dugu (kultur taldeotatik hasita) kultura izaera kritikoa eta parte hartzaile bezala ozen aldarrikatzea eta praktikan gure lanak hortik bideratzea. Eta noski, Azpeitia

“ Udalaren eta kultur taldeen harremana lokalaren eta dirulaguntzen gaitara mugatzea (gehienetan behintzat) ez da kasualitatea”

Iñaki Errazkin

“ Ziur gauden egoerara iristeko herritarrok eta taldeek ardura zatia badugula, baina, ezin du izan udal gobernukoaren ardura ezkutatzeko argudio”

Aitzol Iparragirre



Euskal Herriko herri bat dela ahaztu gabe euskal kulturaren defentsa eta garapena ere lantzea. Oraingo bidea herrira begirako lanean datzala iruditzen zait. Taldeok harremanak sendotu eta herrira begirako kultur produkzioak egitea beharrezkoa dugu. Ezin dugu udalak emango, egingo duenaren zain egon. Kultura, edozein pertsona edo herriren garapen intelektual eta artistiko kritiko eta parte hartzaile bezala ulertzen dugunok behintzat.

Iñaki Errazkin (Zubi Zar-eko Musika Taldeetako kidea)

HAU KRITIKA BAT DA

Kritika bat, bai. Azpeitian kultur azpiegitura eta baliabideen egoera ikusita (kultur azaleraren %30ak soilik du erabilpen egokia, gainontzekoak ez ditu gutxieneko baldintzak edo itxita daude; kultur taldeen parte hartzea ez da onartzen udaleko kultur plangintza egiterakoan; dirulaguntzak banatzeko ez dago aurre irizpiderik, uneko inpresio subjektiboan baitan ematen dira,...) ezinbestean egin beharreko ariketa bat da. Kritika bat, egoerak hobera egiteko, akatsak identifikatu eta zuzentzeko ezinbestekoa baita. Eta kritika bat, PNV-k eta EA-k bultzatutako kultur politikak, bizi dugun testuinguruan (gaizki ulertutako globalizazioaren bidez lantzen ari den homogeneizazio kulturala; Estatu Espainiarrak eta frantsesak Euskal Herriarekiko duten *anikilazio politika* euskara, hezkuntza, Orkatz eta Euskal Herriko hainbat kultur elkarten aurkako *Garzonada*, eta hainbat alorretan emandako erasoez,...) herri eta pertsona bezala garatzeko tresnarik gabe uzten baikaitu. Ziur egoera honetara iristeko taldeek eta herritarrok ardura zatia izango dugula, baina, udal gobernukoaren ardura ezkutatzeko argudio ezin du izan.

Azken finean, gaur egun Azpeitian dugun egoera udaletik (PNV eta EA-k) bultzatu duten kultur politikak herritarren beharrei ezin erantzunean oinarritzen da. “EAJ-PNV-k ez du maite rock and rollik” abesten zuen Hertzainak taldeak. Ez zuen arrazoi faltarik. Ez zaie inoiz gustatu herritik eta herritarren ekimenez sortu, bultzatu eta landutako espresiorik, ez rock and rollik, ez aldizkaririk, ez euskaltegirik,... Nahiago dute kultura produktu salgarri bezala lantzen duten enpresei erraztasunak eman edo kontrolpean dituzten instituzioetatik bultzatutako egunkari, euskalategi, museo eta abar indartu. Eta onartu behar zaie sinesten dutena bultzatzeko zilegitasuna, nahiz eta ez gustatu. Onartezina dena, eredu hori indartzeko talde eta ekimenak dirurik, azpiegiturarik gabe eta ahal bada hitzik gabe uztea da.

GAUR EGUNGO EGOERA. Kultur taldeei beharren inguruan galdetu zaie. Erantzun ere egin zaio Aitor Gorrotxategi kultur batzorde buruak egindako galdeketari. Eta emaitzak? Zer kasu egin zaio ia denek Basazabalen kultur etxea egin behar zela zioten erantzunari? Urteetan landu den politika honen beste ondorio bat mehatxu eta beldurra zabaltzea da. Dirulaguntzak ukatu edo murriztera jo da udalarekiko kritiko agertu den orrekiko. Larriena, gazte gunea aldarrikatzeagatik hainbat gazteri muntai mediatiko bidez egindako kartzela eskaria da. Noiz arte herritarren hitza eta dirua bahiturik? Zein da zuen eredu inposatzeko nahiagatik herritarrok ordaindu beharreko prezioa?

Hitz politekin aspertuta gaude eta gehiago hauek alderantzizko praktika ezkutatzeko funtzioa duten unetik. *Mc-Donald's*, *Chenoa*, kalitatearen legea, Gernikako arbolaren bertsio berria, Garzonen erokeria eta *cara al sol*-en erasoari erantzun eta gure ereduak garatu eta sortzeko tresnak beharrezkoak ditugu. Tresnak (gaztegunea, kultur etxea, musika eskola, herri antzokia,...) ordea, ezin dira udaleko alderdien jabetza moduan sortu, etorkizunik bada, herriari eta herritarrei euren bizitza libreki aukeratu eta garatzeko eskubidea onartu eta praktikan jartzeko aukerak eskaintzetik etorriko da. “Eman ber baizu emaitzu/bestela ezetz ezaizu/ate ondoko hotzak hartzera/amak ez gaitu bialdu”.

Aitzol Iparragirre (Orkatz Kultur Elkartekoa)



● **EKAIN URRESTILLA.** Bost urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak beretzat, orain lau urte PPK Enparanen antolatutako hitzaldia zela-eta sortu ziren liskarregatik.

● **JULEN ARRIETA.** Bi espetxe zigor eskatzen dizkiote. Bederatzi hilabete Andoaingo festetako gertakariengatik. 18 hilabete preso-en aldeko ekintzagatik.

● **IÑAKI AZKUE.** Fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du beretzat, presoekiko elkartasuna adierazteko egindako ekintzarengatik.

GAZTEAK KARTZELA ARRISKUAN

Zazpi herritarrek hamazazpi urteko presondegi eskaera daukate; gehienek euskal preso-en alde agertzeagatik jaso dute

Nerea Aranburu

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei eta zazpi. Zazpi lagun hamazazpi urteko kartzela zigorra eskatzen diete. Zazpiak dira gazteak. Zazpiak azpeitiarrak. Eta zazpiak kartzelara joateko arriskuan aurkitzen dira. Bakoitzak du bere istorioa kontatzeko, eta bakoitzak espetxe zigorraren eskaera jaso du. Hiru epaiketa, eta zazpiak epaiaren zain.

Bata, orain lau urte, 1998ko udazkenean gertatua. Udal hauteskundeak gainean zirela, PPK hitzaldi bat antolatu zuen Enparan Dorretxean. Egun horretarako, Amnistiaren Aldeko Batzordeek kontzentrazioa deitu zuen, leku berean, PPren espetxe politika salatzeke. Bertan sortu ziren

liskarren ondorioz, aurtengo azaroaren 14an Donostiako Lurralde Auzitegian egindako epaiketan Ekain Urrestillarentzat bost urteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak. Beste bi lagunentzat —Josu Urbietarentzat eta Xabier Etxeberria iheslariarentzat— bi urteko espetxe zigorra.

Bigarren epaiketak, orain urte batzuk Andoaingo festetan gertatutakoarekin du lotura. Han Ertzaintzarekin izandako gertakari bat tarteko, Julen Arrieta azpeitiarra epaitu zuten urriaren 24an Donostiako Lurralde Auzitegian. Fiskalak bederatzi hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du Julenentzat.

Beste epaiketa bat ere egingo da, eta honetan ere fiskalak kartzela zigorra eskatzen die bost laguni. Gertaera 2001eko

otsailaren 22an izan zen. Euskal presoekiko elkartasuna adierazteko, Azpeitiko saihesbidean ekintza bat egiten ari ziren. Ondoan beste lagun batzuk, kontzentrazioan. Ertzaintzak kontzentrazioan omen ziren bost lagun identifikatu zituen. Lagun hauek abenduaren 11n izango dute epaiketa Donostiako Lurralde Auzitegian. Fiskalak bakoitzarentzako 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du.

Egoera hori salatzeke, azaroaren 23an *Utzi bakean Azpeitia. Muntai polizial juridikorik ez* lemapean manifestazio isila antolatu zen. Manifestazioak herriko hainbat talderen eta plataformen atxikimendua jaso zuen. Guztiak, “azken boladan Azpeitiko herriak jasaten duen errepresioa” salatu asmoz manifestatu ziren. Aldi bere-


• **SASIAN DA.** Xabier Etxeberria Txapi ere epaituko dute. Baina ez da azalduko, ihes eginda dagoelako 2001etik.



• **ASIER ARANBARRI.** Orain urtebete, presoekiko elkartasuna adierazteko egin zen ekintzarenatik, 18 hilabeteko espetxe zigorra eskatzen du fiskalak.

• **JOSU URBIETA.** Fiskalak bi urteko kartzela zigorra eskatzen du, 1998an Enparan Dorretxean euskal presoen aldeko ekintzan parte hartzeagatik.

• **HARITZ ARZALLUS.** 18 hilabeteko espetxe zigorra eskatzen du fiskalak, orain urtebete Azpeitiko saihebidetan euskal presoaren aldeko ekintzan parte hartzeagatik.



• **ENPARANEKO LISKARRA.** 1998ko udazkenean, udal bozak gainean zirela, PPK ekitaldia zeukan Enparan Dorretxean. Azpeitiar ugari azaldu zen presoaren eskubideen aldeko kontzentrazioa. Liskarra izan zen Ertzaintzarekin, argazkian ikus daitekeenez.

“ Atxiloketak, inkomunikazio egoerak, miaketak, jarraipenak, isunak, identifikazioak, manifestazio ukapena daude Azpeitian ”

Askatasuna

“ Euskal Herrian eta Azpeitian eskubide zibilak eta politikoak ukatzen dira, eta errepresio egoera hori errealitate bihurtu da Azpeitian ”

an, “manifestazio eta adierazpen eskubideak urratuta” izateaz gainera, azkenaldian “herrian somatzen den polizia ezberdinen presentzia” ere salatu zuten. Askatasuna taldearen hitzetan, “bizi dugun gatazka gainditu eta euskaldunon eskubide demokratikoa errespetatuko lukeen eskenatokiaren aldeko urratsak emango ditugu”. Bestetik, “demokrazia formal batean, herritar orok izan behar lituzkeen eskubideak ukatzen zaizkigunez, ezin dugu begira egon”, dio elkarte horrek, eta “eskubide demokratikoen defentsan antolatu beharra” ikusten du.

ESKUBIDEAK. Askatasunaren aburuz, Euskal Herrian eta Azpeitian “euskaldunei eta azpeitiarrei eskubide zibilak eta politikoak ukatzen” zaizkie. Horren adibide gisa ondorengo egoerak azaldu ditu Askatasunak: “Atxiloketak, inkomunikazio egoerak, miaketak, isunak, polizia mota desberdinen eskutik eginiko jarraipenak, identifikazioak, Ertzaintzaren eskutik ematen den manifestazio eskubidearen ukapena eta abar Azpeitiko errealitate bihurtu dituzte”. Askatasunak, “errepresio egoera” honen erakusle, herriko zazpi gazte haueztako fiskalak eskatzen duen kartzela zigorra jarri ditu.

Zazpi gazteei, Juleni, Ekaini, Xabierri, Haritzi, Iñakiri, Asierri eta Josuri fiskalak eskatzen dien zigorra ezaguna da. Epai-learen erabakia, aldiz, jakiteko dago. •

udal erabakiyek

Auzarazako errotondako lanak aldaketak eragin ditu Loiolarako errepidean

Hilabete batzuk badira Auzarazako errotonda egiteko eta altxatzeko lanak hasi zirela. Lan horien ondorioz, azaroaren hasieran Loiolatik Azpeitirako sahiesbidean aldaketak izan ziren. Hala, Loiolatik Azpeitira datozen autoentzako norabidea itxi egin da, norabide bakarrera mugatuz sahiesbidea (Azpeititik Loiolara doazenentzat). Loiolatik Azpeitira datozenek Barrenetxetik Garmendi-Gainera doan errepidea hartu beharko dute lan hauek irauten duten bitartean.

Santotomasetan txosna jartzeko izenemate epea zabaldu da dagoeneko

Santotomasetan postua jarrri nahi dutenek izena emateko epea ireki du uda-leko Festa Batzordeak. Udaltxean izena eman beharko da abenduaren 9a baino lehen. Postuen zozketa, aldiz, abenduaren 11n egingo da, 20:00etan Azpeitiko Udaltxean.



Berrituko diren eskilarak.

Bi auzoren artean, aldapa berria

Pablo VI.a auzotik Garate Anaia auzora aldapa berri bat egingo da, eta gaur egungo eskailerak berritu egingo dira. Eskaileren berritze lanak azaroaren erdialdera hasi ziren, eta laupabost hilabete iraungo dute. Lanak egiteko 396 euro gastatuko ditu udalak, eta, horrela, Hartzubia inguruko lanak bukatutzat emango ditu.

Joseba Albizu Italian ariko da profesionaletan



Joseba Albizu txirrindularia.

Nerea Uranga / Joseba Albizu txirrindulariak txirrindularitza profesionalerako jauzia emango du 2003an, uztarría.com-ek aurreratu zuenez lehengo astean. Beraz, ez du bizikleta utziko, azkenaldian hortxe zerabilkien asmoa ez du beteko: talde profesional bat topatu ezean txirrindularitza uztea, alegia. Cafes Baque enpresak txirrindularitza profesionalean aterako duen taldearen eskaintzari uko egin dio Albizuk eta Italiako talde batean ariko da. Italiako bi ekiporen eskaintza jaso du: Alessio eta Tacconi taldeena. Lerrook idazteko orduan, bi taldeekin hizketan ari zen azpeitiarra eta erabaki gabe zuen zeinekin sinatuko zuen datorren denboraldian profesionaletan aritzeko; aukera bat da Italiako bi taldeok bat egitea.

Aizpea Goenaga gurieh..!

aktorea

“Azpeitiko ikuslegoa antzerkia ikustera ohituta dago”

Nerea Uranga / Aizpea Goenaga Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan hainbat antzezlanekin izana da aurreko urteetan. Aurten, Topaketen XX. edizioan, bi alditan izan da: Aktorearen Egunean Kontxu Odriozolari eskaintako omenaldian, eta azaroaren 30ean *Hau paraderoa!* antzezlanarekin.

• Zer iruditzen zaizkizu Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak?

Maiz etorri izan naiz Topaketetara, saioak ere egin izan ditut. Aurten *Hau paraderoa!* antzezlanarekin etorri naiz. Eta Topaketen inguruan, zorionez hor daudela esango nuke.

• Nolakoa da Azpeitiko ikuslegoa?

Oso-oso ikuslego ona da Azpeitikoak. Nik uste dut antzerkia ikustera oso ohituta dagoela, eta antzerkia asko jarraitzen duen ikuslegoa dela.

• Aktorearen Egunean Kontxu Odriozolari egin zitzaion omenaldian ere Azpeitian izan zinen.

Bai halaxe da. Kontxuk ondo merezitako omenaldia jaso zuen. Iruditzen zait Kontxu aktore oso handia dela, benetan ona. Uste dut bazuela horrelako omenaldi bat jasotzeko garaia, eta espero dut omenaldi gehiago ere izango dituela Kontxuk; eta zorionez, bizirik dago ikusteko.



Lehena, oraina, geroa: 25 urte eta orduetako lanaren emaitza

Nerea Uranga / Bi ordu pasatxoko dantza ekitaldi ikusgarria eskaini zuen Itsasi Dantza Taldeak azaroaren 23an Izarraitz Pilotalekuan. Taula gainean dantzariak, oraingoak eta lehengoak. Aurrean eta behean, dantzariak, lehengoak, oraingoak eta etorkizuneko dantzari izango diren dantzari gazteak. Dantza taldearen 25 urteotako eta ordu askotako lanaren fruitua eskaini zen. Euskal Herriko dantzak, ohi baino dantzari talde handiagoek dantzatuak. Dantza ugari, bata bestearen atzetik dantzatuak. Arropa koloretsuek jarri zuten kolorea pilotalekuan. 25 urteotako laburpenak, urte hauek guztietako lanaren erakustaldiak dantzaletan bihurtu zuen Izarraitz Pilotalekua. Bukaerarako, oroigarriak, dantzari eta dantza irakasle izan diren Mikel Larrañagak, Begoña Aizpuruk eta Marilolo Goenagak opari bana jaso zutelako. Itsasi Dantza Taldeak ere jaso zituen oroigarriak, eta baita dantza taldearen arduradun Xabier Bidezabalek ere.



datua

● **158 LAGUN.** Itsasiren *Lehena, oraina eta geroa* dantza ikuskizunean 158 lagun igo ziren taula gainera. 32 musikari, 92 dantzari heldu eta 34 haur.

Itsasiren ikuskizuneko irudi bat. / NEREA URANGA

zer dago gaizki, zer soberan, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Abenduak 23 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Azkue arropa dendako erosketari txartela.

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA



IRABAZLEA: M. Angeles Arrizabalaga



M. Angeles Arrizabalaga izan da 35. garailea. Arrieta Elektrogailuak-ek emandako irrati kasetea irabazi du. Argazkian, M. Angeles bera —eskuintzean— eta Arrieta Elektrogailuak dendako jabea.

“Orain dela bi urte lau t’erdiko txapelketa irabazi eta uste nuen Aspek aukera emango zidala”

Iban Otaegi
(pilotaria)

“Uste dut antzerkiak gauza asko eskain ditzakeela, baina ez direla behar bezala estimatzen”

Kontxu Odriozola
(aktorea)



Kontxu Odriozola.

“Bertsotan erdi ezkutuan jarduten duen jendea bertso eskolara erakarri nahi dugu”

Laxaro Azkune
(Erniarraitz Bertsozale Elkarte)

‘Euskal Presoak Euskal Herrira erakusleiho eta balkoietan’ kanpaina abian da

Neera Uranga / Euskal Presoak Euskal Herrira Azpeitiko Plataformak kanpaina berri bat jarria du martxan, azaroa eta abendua bitartean, etxeko balkoietan *Euskal Presoak Euskal Herrira* dioten banderatoak jartzearen aldeko kanpaina, hain zuzen ere. Kanpainaren barruan, herriko denda eta tabernetan ere lema berdina duten txartelak jartzearen aldeko ahalegina egingo dute ekimen honen antolatzaileek. Kanpaina honen helburua “azpeitiarrek hamaika aldiz adierazi izan dutena egunero ko aldarrikapen” bilakatzea da. “Urtearen azken txanpan sartuak garen honetan, ondo dakiugu egoera zeinen gogorra den espetxeetan, eta behin baino gehiagotan ikusi eta bizi izan

dugu egoera honek gure herrira dakarren sufrimendua zentzuzko den”, diote plataformako kideek. Hori dela eta, herriko denda eta tabernetan salgai jarriko dira banderatoak, jendeak bertan erosi ditzan.

Bestetik, urtero bezala, euskal presoek eskubideen alde hainbat ekintza antolatu ditu Gabonetarako Azpeitiko Plataformak, besteak beste, abenduaren 24an, 19:00etan egingo den konzentrazioa eta hilaren azken ostiraletan egin ohi duten maingira. Datorren urterako, gainera, egutegi bat kaleratuko dute, Azpeitiko garai bateko argazki zaharrek osatua. Egutegia, abenduaren hasieratik, herriko toki desberdinetan jarriko da salgai. ●



Balkoietan banderolak jartzearen kanpainari ekin dio Plataformak.

AIZPURU

AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSSES AKADEMIA

apunta
zaitez!

allons-y 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - I

Amenabar

DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AMAIA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria

Urritizkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

“Zarautzen giza-
talde ondradu eta
diziplinatu batekin
aurkitu naiz”

Joseba Zubizarreta
(Zarautz F.T.-ko entrenatzailea)

motxien

Bidezko merkataritza denda

Azpeitiko Mixio Taldeak, urtero bezala, Gabon jaietara begira bidezko merkataritzara zuzendutako denda zabalduko du. Denda Santiago kalean Caritas-ek duen lekalean irekiko da, abenduaren 15etik urtarrilaren 5a bitartean.

Gabon otarra ekologikoak aukeran

Ingurumenaren Etxeak, Biolur Nekazaritza Ekologikoko Elkartearekin lankidetzan, gabon otarra ekologikoak jarri ditu salgai. Helburu nagusia kontsumo ekologikoa sustatzea da. Horretarako bi otarra jarri ditu: bata 87,15 eurotan, eta bestea 57,10 eurotan. Eskariak egiteko 943 151713 telefonora deitu beharko da.



HILERRIA ZELAI. Hilerririk zelai itxura har dezan, zenbait neurri hartu ditu udalak. Irudian ikusten diren hil-harriak jarriko dira aurrerantzean (hasi dira jartzen), lurra zelai itxurarekin utziz.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA


KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

MENDE GOZO BAT

Egaña gozotegia ospakizunetan murgildurik dago. Valverdeneko lokalean ireki zituen atea 1902an; orain dela 30 urte, gaur egun ezagutzen dugun lekura igaro ziren. Ehun urte daramatza, beraz



Hasierako urteetan Egañanean ardoak eta likoreak saltzen ziren. / EGAÑA GOZOTEGIA

Nerea Aranburu

Azpeitian historia handia duen gozotegia da Egaña. 1902ko azaroan ireki zituen atea lehen aldiz, baina ez gozotegi bezala, "horretarako dirurik ez baitzegoen garai hartan".

Lehen dokumentuen arabera, "nire birraitona zen Klemente Egaña lizentzia bat eskatu omen zuen ardoak eta likoreak saltze-

ko", gogoratzen du Inazio Egaña. Hala ere, denbora gutxi barru hasi zen gozotegi bezala funtzionatzen, 1930eko argazkietan jada gozotegi izena azaltzen baita. Lehendabizi Valverdeneko lokalean ireki zuten denda. Gero Enparantza Nagusian dagoen etxea erosi eta han ireki zuten. Gaur egun gozotegia aurkitzen den lekura orain 30 urte inguru aldatu ziren. "Lehen urteetan, orduko gozotegietan bezala, argizariarekin

kandelak egin eta saltzen ziren, baita menbrilloa, azukrea ere. Hauekin batera, ardoa, pattarra eta likoreak egoten ziren salgai" dio Inazio Egaña. "Gerra garaia izanik, arrautzak eta lortzeko arazo handiak".

Gozogile ofizioa familiarik datorkie. Birraitona sukaldaria zen, "Loiolako jesuitekin lanean jarduna". Gero denda jarri zuen, eta pastelak egiten hasi zen. Gozotegitik familiariko lau belaunaldi igaro dira: "Birraitonari aitona jarraitu zion. Gero aitak, eta orain gu ari gara lanean. Gerokoetan, ikusi egin behar zer gertatzen den!".

URTEETAN ALDAKETA ASKO. Urte hauetan guztietan gauzak asko aldatu dira, teknika berriak sartuz eta eskaintza maila zabalduz joan dira Egañanekoak. Inazio beraren hitzetan, "azken bost urteetan ere aldaketa handiak eman dira, gai honetan gero eta ikerkuntza eta lan gehiago egiten baita". Pastelak egiteko moduak ere aldaketak izan ditu. "Lehen pastelak egiteko gehienbat merengea erabiltzen zen, arrautzen zuringoa harrotuz. Hau nahiko prozesu sinplea da. Gero, nata eta krema sartzen joan ziren". Une hauetan, Egaña gozotegia ahal den aukera gehiena eskaintzen saiatzen da bere bezeroei, era guztietako gozotegiak eginez: tartak, opilak, pastelak eta bonboiak. "Nahiko gozotegi artisaua daukagu, eta, azken finean, artisauen lana hori dela pentsatu izan dut beti. Ahalik eta gauza gehienak etxean egitea, kanpotik materiala ekarri gabe".

Gozotegiak 100 urte bete berri dituela eta, hori ospatzeko bezeroei oparitxo bat egitea pentsatu dute. "Gure kasuan berriz, langileek eta etxeok bazkari bat egingo dugu, eguna ospatzeko".

“Lehen pastelak egiteko gehienbat merengea erabiltzen zen, arrautza zuringoa harrotuz. Gero nata eta krema sartzen joan ziren”

Inazio Egaña
(Egañaneko gozogilea)

Azpeitia, herri gozozalea

● Inazio Egañaren esanetan, Azpeitiko herria gozozalea da. "Herri gehienak hala dira, baina, nire esperientziagatik, gure herria ere hala dela esango nuke". Nahiz eta horrela izan, pastel eta opil kontuetan "nahiko tradizionala, klasikoa" omen da

Azpeitiko jendea. Gauza berri bat egiten dutenean, jendeak galdetu egiten du zerekin dagoen egina. Behin jakiten dutenean, eta zerbait desberdina badu, ez omen dira ausartzen probatzera, "hurrengo batean emango dut" esaten omen dute askotan.

Egaña gozotegiko espezialitatea *Inazioak* izanik, jende gehienak horiek erosten ditu. Hala ere, *Inazioez* gain, txokolatezko tartak, pastak eta abar egiten dituzte gozotegian, "pixka bat denetik", dio. "Inazioekin batera, une hauetan arrakasta gehien dutenak *petit suisse* izeneko pastel txiki horiek dira". ●



E·G·A·N·A



100 urte
herria gozatzeko
zuei esker



goiko-kalea, 10 azpeltia
tel. 943 81 18 85




mugi
kirolak



Enparan kalea 8
943 151004



ez egon geldirik!

Romaes

Lentzeria

Erakutsi nahi izango duzu

Elizkale, 3 Tel. 943 - 815920

Astelehen goizetan ere ireki

Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Merkato PC ak, Euro merkato PC ak, Portatila

Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Teknika azkarra, Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multitaskak, Formak harabide apuragarriak, Isotriak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaila, Sareen mantenua, Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak, Kontabilitate, Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua



2002 Corporate, 2001 Tienda, 2001 Escaparate

Eregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Enpresetarako Telefoniako zerbitzu guztiak



Azpeltia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Tel: 943 65 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Be
Tel: 943133385

Banataile Ofiziala
Euskaltel

JOSU SALEGI

Bidaia



“Lurralde bakoitzak bere xarma eta edertasuna du”

Uztailean atera zen etxetik, beste lurralde batzuk ezagutzeko asmoz. Hiru hilabetez egon da bidaiatzen. 4.600 kilometro egin ditu bizikleta gainean

Aspalditik zebilkien buruan bidaia luze bat egiteko asmoa Josu Salegik. Uztailaren 12an atera zen bere bizikleta hartuta Pirineo aldera. Hiru hilabete igaro ondoren, urriaren 26an itzuli zen etxera.

• Nondik sortu zitzaizun bidaia luze bat bizikletaz egitearen ideia?

Buruan bueltaka nuen bidaia bat egitearen kontua, baina zalantzak nituen nola egin. Niri bizikleta pixkanaka gustatu zaidan zerbait izan da. Lehenik, lanera bizikletaz joa-

ten nintzen. Gero, Santiagoko bidea ere bizikletaz egin nuen lagun batekin. Eta azkenean, bidaia bizikletaz egitea pentsatu nuen.

• Haseratik garbi al zenuen nora joan nahi zenuen?

Nire lehen asmoa Pirineotara joatea zen, Pirineoak zeharkatzea bizikletaz. Gero beste asmo batzuek ere banituen. Mapa hartu eta beti begiratzen nuen Ekialderuntz, Grezia aldera batez ere.

• Nola antolatzen zenuen eguna?

Gauza askoren arabera izaten zen antolaketa. Eguraldi ona bazegoen eta toki ederra bazen, orduan egun batzuk gehiago gelditzen nintzen bertan. Aurretik, jakineko leku batzuk ikusteko asmoa banuen; adibidez, Italian sartzean Pisako dorrea, Florentzia, Venezia. Leku horiek politikak dira, eta egun batzuk gehiago gelditzen nintzen, gauzak ikusteko eta abar.

• Zein lekutan egon zara?

Lehenik Pirineotan, eta gero Frantziako kostara igaro nintzen. Handik Italiara, Florentzia eta Venezia alde horretara. Ondoren, Kroazian, Jugoslavian, Grezian eta Bulgarian egon naiz.

• Zein herri gustatu zaizu gehien?

Kroazia asko gustatu zait, aspalditik nuen lurralde hori ikusteko gogoia. Hala ere, lurralde bakoitzak du bere xarma eta edertasuna. Bulgaria aldea ere oso ederra da. Italian berriz, gauza eder asko dago ikusteko eta dastatzeko.

• Herrialderen batean izan al duzu arazorik?

Ez. Arazo bakarra Bulgariatik ateratzean izan nuen, Bulgariatik Errumaniarako mugan. Han *ferry*-a hartu beharra nuen, eta bertan hamar orduz eduki ninduten. Hasiera batean, untzia apurtuta zegoela, gero kamioi gutxi zeudela. Ondoren, pasaportearen zerbait gaizki zegoela esaten zidaten. Azkenean utzi zidaten pasatzen.

• Bidaia guztian zerk harritu zaitu gehien?

Asko dira. Orain burura datorkidan bat: Bulgaria aldean jendeak erakutsi zidan adeitasuna.

• Bidaia egin ondoren, zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Ona, pertsonalki balorazio oso ona egiten dut. Bidaia honekin gauza asko ikasi ditut, neure kabuz moldatzen, trebetasunak hartzen. Orokorki esanda, bizitzarekin konfiantzen ikasi dut. ●

Derea Aranburu

LABURPEN BAT EGINEZ



Kaixo esan nizuen urtarrilean, agur esango dizuet orain, abenduan. Hamabi hilabete joan dira, hamabi artikulu idatzi ditut. Azpeitia abiapuntutzat hartuta, bertako gauzarik aipagarrienak, kritikagarrienak edo amorragarrienak, nere ustez, agertu nahi izan dizkizuet.

Azpeitiak, izan ere, bi ezaugarri nagusi ditu: batek munduak eta Euskal Herriak daraman martxaren barruan kokaturik dago; bertako bizimodu burgesa eta eroso, auto ederrekin, oporrekin, supermerkatu handiekin eta abar, ondo bizi den eta *lehen mundua* deitzen zaion horretako beste herri guztien igola da. Ondo janda eta ondo jantzita bizi gara, eta txorakeriengatik kezkatzen gara, hain aseta gaude denetik. Zerbait falta izatekotan bizi-poza da, alaitasuna, barrua lehertzen duen ilusio hori; barre nekez egiten dugu, telebistan ikusten ditugun pobreek barre erraz egiten duten bitartean.

Baina bestetik, Azpeitiak baditu berezitasunak, bertako jendeak badu izaera bat. Nonbaiten "hori azpeitiarra da" entzuten badugu, ideia multzo bat datorkigu automatikoki burura. Ezaugarri horiek topikoak besterik ez dira askotan, eta topikoak direnez, txorakeria hutsa dira, faltsuak. Pertsona bakoitzak ezberdina delako, bere izaera daukana. Edo hala behar luke, behintzat. Hori litzateke aberasgarriena denontzat.

Baina gauza bat gertatzen da: gizarteak, bide askoren bitartez, bata eta bestea sartzen dizkigu buruan, eragina dauka guregan, eta, askotan, geuk benetan egin nahiko genukeena alde batera utzi eta ondo ikusia dagoena baino ez dugu egiten, edo denek egiten dutena, edo modan jarri dena, edo halako gerta ez dakigun komeni dena. Askotan ausardia falta zaigu geure nortasuna agertzeko, geure nortasuna nabarmentzeko, eta beste guztien igoalak izanez babes ten dugu geure burua.

Badirudi ezberdina izatea mingarria dela. Ba ez. Gozagarria da benetan, beste gauza gutxik bezala barrua betetzen dizun zerbait da, indar ikaragarria ematen dizurria. Zoritxarrez, beti ohiturak errepikatzen dituzten izakiak bihurtu gara. Gure egunik gehienak ia jende berdinez inguratuta

pasatzen ditugu, gauza bertsuak egiten beti, ezusteari aukera gutxi emanez; espontaneoak izatea zer den ere gogoratzen al dugu?

Poteak betikoekin hartzen ditugu; kafea ere, hartzen badugu, betikoekin. Etxean betikoa egin, berregin eta errepikatzen dugu, asteburuetan ere bai.

Hau leku guztietan gertatzen da. Eta Azpeitian ere bai. Oso herri ohiturazalea dugu Azpeitia. Ohitura batzuk onak dira, eta beste batzuk ez. Ohiturek segurtasuna ematen dute, baina aspermena ere bai horrekin batera. Eta ohiturak, batzuk behintzat, puskatuko bagenitu? Zerbait berria sentituko genuke, emozio handiagoa, gozamen sakonagoa, eta baita inseguritatea ere horrekin batera. Aukera bakoitzaren esku dago.

Baina aukera hori daukagula sentitzea bera ere pauso bat ematea da. Herri bat ez da modernizatzen etxe berriekekin, kable digitala sartuta edota errotondak eta aparkalekuak eginda. Munduarekiko daukagun jarrera da modernizatu behar duguna: gure matxismoa eta autoritarismoa baztertu, kanpotik datozenak hobeto tratatu, erlijio kristauarekiko menpekotasuna baztertu, arrazoirik gabe epaiketa krudeletan sartu dituzten herriko gazteak babestu, normaltasunez onartu geure maila soziala, itxurakerien antzerki garestian erori gabe, hitz gozoak esan tarteka, ez beti gure tipikoak omen diren adar-jotze eta ankerkeriak... eta beste gauza asko.

Baina ojo, ez dut Gabonetako sermoi bihotz-onekorik egin nahi. Ez da malaletxerik galdu behar, ez behintzat injustiziaren aurrean, ez tontokerien aurrean, ez marginazio ekonomikoaren aurrean eta beste gauza askoren aurrean.

Urtebetez irakurri nauzueno, gero arte.



HILEKO GALDERA. Gabonetan gastatuko dugunarekin, zenbat milaka haurrek salbatuko lukete bizitza munduan zehar?

uztarria.com

Uztarria.com, UEUK antolatutako Software Libreko Mintegian izan da

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03-58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako enasen eta iritzien erantzukizuna



Josu Azpillaga, Uztarriako kidea —eskuinean—, mintegian hitz egiten.

Azaroaren 23an, UEUK (Udako Euskal Unibertsitateak) antolatuta, Eibarko Markeskua jauregian Software Librearen II. Euskal Mintegia izan zen. Aretoa bete egin zen (60 lagun inguru), eta sarrera eskatutako batzuk kanpoan gelditu ziren. Zortzi hitzaldi labur izan ziren, eta horietako bat uztarria.com-i buruzkoa.

Mintegian software librearen mugimenduaren eta aurten martxan dabiltzan produktu eta aplikazioen berri eman zen. Uztarriako kide Josu Azpillagak Uztarriaren webguneko esperientziari buruz jardun zuen mintegian. Webgunea Uztarria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektuaren barruan kokatzen dela azaldu zuen. Webgunearen sorrera, funtzioa, ezaugarriak, ondorioak eta aurrera begirako asmoen berri ere eman zuen hitzaldian Josuk. (www.uztarria.com-en hitzaldia osorik ikus daiteke, baita mintegian erakutsi ziren diapositibak ere).

rriako kide Josu Azpillagak Uztarriaren webguneko esperientziari buruz jardun zuen mintegian. Webgunea Uztarria Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektuaren barruan kokatzen dela azaldu zuen. Webgunearen sorrera, funtzioa, ezaugarriak, ondorioak eta aurrera begirako asmoen berri ere eman zuen hitzaldian Josuk. (www.uztarria.com-en hitzaldia osorik ikus daiteke, baita mintegian erakutsi ziren diapositibak ere).

albiste txikiyek

Imanol Eliasi buruzko liburua salgai

Uztarria Kultur Koordinadorak, Mailo Oiarzabal kazetariaren bitartez egindako Imanol Eliasi biografiak salgai segitzen du herriko tabernatan eta liburu-dendatan. Liburuak zazpi euro baliotu ditu.

Uztarriaren atxikimendua AGZ-ren eskakizunari

Barruko gaizki-ulertze bat dela medio, Azpeitian Gazteok Zer-en azken manifestazioaren atxikimenduen artean ez zen Uztarriarena ageri. Uztarriak argi utzi nahi du bat egiten duela gaztegunearen eskakizunarekin, eta beraz, AGZren eskakizun horri bere atxikimendua ematen diola. Gogoratu nahi dugu, beste behin: Uztarriak, sorrerako batzarraren erabakienez, berari dagozkion (euskara, komunikazioa eta kultura) gaiei eta taldeei ematen die soilik atxikimendua.

608 bazkide gara Jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste gutzia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Enrike Zurutuza

albaitaria eta idazlea

Sortzez ataundarra da Enrike Zurutuza, eta sentimenduz azpeitiarra. 50 urtean bizibide albaitaritza izan du. Eta albaitaritzako testu zientifikoak idazten hasi eta literaturan ere mugildu izan da



“Oraindik ere idazten d



Udal liburutegian egin genuen topo Enrikerekin. Egunero ez bada ere sarritan joan ohi da bertara, egunkariak irakurtzera edota libururen bat kontsultatzera. Hitzordua jarri eta hurrengoan bere etxean, laneko gelan egon ginen berriketan eta bere argazkiak ikusten. Laneko gela: mahai handia erdian, inguruan bi eserleku, aldamen batean ordenagailua eta aurrean liburutegia. Txoko batean, berriz, Azpeitiko Udalak omenaldia egin zionean eskainitako zurezko eskultura: albaitaria txahal bat auskultatzen. Nola ez ba, bizibide albaitaritzan izan baitu ia 50 urtean. Ataundik albaitaritzak ekarri zuen Enrike Azpeitira.

● **Baserritik unibertsitatera. Nola eman zenuen pauso hori?**

Baserritarra eta maiorazgoa, seme bakarra bainaiz. Hortik atera kontuak. Mutil kozkorra nintzela maisu erdalduna geneukan, nafarra. Ataungo herriak apropos maisu hori ekarri zuen, guk gazteleraz ikasteagatik. Harekin gazteleraz derrigor egin behar zen. Maisua, eskolak bukatutakoan paseo bat egitera joaten zen, gure aita zena baserrian lanean ari zen batean harekin berriketan gelditu eta ikasketetako balio nuela esan zion. Aitak, berriz, lagunduko nindutela erantzun zion. Gure etxean beti izan dira karreradunak, zerbait eskuartedunak ziren eta. Karreradunak beti izan dira, baina albaitaria ni bakarrik.

● **Batxilerra bukatu ostean, Zaragozara, albaitari ikasketak egitera. Pauso gogorra izan al zen?**

Baserritik unibertsitatera, hori maila gogorra zen gero, han galduta sentitzen zara. Baina ez nintzen horren gaizki ibili, euskaldun batzuk bazeuden han, eta haiengana hurbiltzen nintzen. Ataungoak ere bazeuden, gainera. Ataunek herritar asko ditu tituludunak, Azpeitiaren aldean asko.

● **Baina unibertsitatean ari zinela Espainiako 1936ko Gerra Zibila hasi zen.**

Bai, hain zuzen uztailaren 18an sortu zen. Ordurako, ikasturtea bukatu eta etxera etorriak ginen. Une bertatik, unibertsitateak itxi zituzten eta nik oraindik bi urte falta nituen ikasketak bukatzeko, baina udazkenean itzultzerik ez nuen izan. Ataungo herria Nafarroa inguruan dagoenez, berehala sartu ziren erreketek. Eta kintak soldaduak eramaten hasi ere bai. Lehenengo 36koa eraman zuten, gero 37koa, eta ni 38koa nintzen. Hori ikusita, bolondres aurkeztu nintzen. Bolondres aurkeztean nahi zenuen arloa aukeratzea baitzegoen, eta nik albaitariena aukeratu nuen, gerrako frontean tiroka ez ibiltzeagatik. Hain zuzen, Azpeitian sartu nintzen albaitarien tal-

t apurtxo bat”

► dean, hemen bertan baitzeuden. Burgosko koartel nagusira bidali ninduten, eta gaudetegi handi batean mandoak eta zaldiak sendatzen ipini. Makinatxo bat ebakuntza egin genuen, eta aitortu beharra daukat nire lanbidearen etorkizunari begira oso esperientzia baliagarria izan zela hura. Iparraldeko fronteak bukatu zenean, Pirinio aldera bidali ninduten, eta azkenean Madril aldera, baina hara iristerako gerra bukatu egin zen. Zorionez.

● **Gerra bukatu eta berriro unibertsitatera.**

Bai, baina hiru urtean elkar ikusi gabe egon ondoren tristeza izan zen bueltako sarrera. Ikusi orduko elkar sutsu besarkatzen genuen. Baina hutsune nabarmenak ageri ziren. Galdezka hasten zinen: halako non da? Frontean hil zuten... Eta beste halako? Afusilatu egin zuten... Benetan sarrera gogoangarri tristeza.

● **Unibertsitateko ikasketak bukatu eta Azpeitiko albaitari plaza lortzeko hainbat tirabira izan omen zenituen.**

Sortu zitzaidan, bai, oztopo ugari. Garai hartan, herriko albaitari izendatzea udalek egiten zuten. Legezko arautegi bat zegoen aukera nola egin erakusten zuena, eta derrigorrez bete beharrekoa. Puntuazio baten bidez hartu behar zen erabakia. Gehien lortzen zuenaren alde. Puntuak lortzeko kontuan hartzen ziren: lanean jardundako urteak eta unibertsitateko ikasketetan lortutako notak. Ni gaztea nintzen, eta laneko puntuaziorik ez neukan, baina ikasketa notekin beste denak gainditzen nituen; beraz, edozein herri eskatzeko moduan nengoan. Lau herri aukeratu nituen: Azpeitia, Tolosa, Bergara eta Eibar. Hauen artean, Tolosan eta Bergaran, bertako semeak zeuden albaitari nahi zutenak. Uzteko eskatu zidaten eta ni erretiratu egin nintzen. Gelditzen zitzaizkidan bi aukeren artean lehendabiziko Azpeitia eta bigarren Eibar izendatu nituen. Aukeratu neukan lehendabiziko herrian, Azpeitian, legea baztertu eta udalak beste bat izendatu zuen. Aurretik interino bezala zegoen albaitariak azpi-lana eginda zeukan eta *kazikada* egin zidaten. Diktadura garaia zen, eta ikusten zen horrelako ugari. Baina nik errekurtsioa jarri nuen Madrilgo ministeriora. Berehalak hasi zitzaidan sekulako borroka, herriko udala, Gobernadore Zibila eta abar, denak soka batekoak eta denak batera nire aurka. Ez da erraz esaten zenbat gezurrezko salaketa egin zizkidaten ni etsiarazteko. Baina nik lege garbia neukan alde, eta azkenean Madrilera nire aldeko epaia eman zuen. Bi urte iraun zuen nire borrokaldiak, eta bitartean Eibarren egon nintzen albaitari. Oso leku polit eta atsegina da Eibar, baina nik Azpeitirako ilusioa neukan eta hona etorri nintzen.

‘Joxe Miguel’-en berriketaldiak

● *La Voz de Guipuzcoa* Irratitik, euskal talde bat osatu nahi zutela-eta deitu zioten Enrike Zurutuza. Irratian euskarazko saioa egiteko talde bat elkartu zen: Nemesio Etxaniz, apaiza eta euskal idazlea, *Basarri*, Maria Dolores Agirre Donostiako euskal eskolako irakaslea, Oñatibia eta Etxebeste. “Entzuleak erakartzeko berriketa eta bertso batzuk egiten genituen. Berriketageileak ni izendatu ninduten eta bertsoak *Basarri*-k abesten zituen. Baina kontuz ibili beharra zegoen, zentsura handia baitzegoen”, kontatzen du Enrikek. Berriketaldietan *Joxe Miguel* bezala ezagutzen zen Enrike.



Rodriguez, Basarri, Oñatibia, Etxebeste, Maria Dolores Agirre eta Zurutuza. 1979. urtea. Irratiko taldeko kide batzuk.

Oraindik ere ikerlari

● **Azpeitiko Udal Liburutegian sarritan egin daiteke topo Enrike Zurutuza-rekin. Egunkari edota libururen bat eskuartearen duela betiere. Udal Liburutegiaren egoitza Enparan Etxearen arrastoak eta historia ere ederki iker-tuak ditu. Ez, ordea, Enparango Dorretzeko kontuak soilik, Loiolako Basilikaren historia, Loiolako Dorretxearen historia ere iker-tu eta idatzita dituelako. Udal Liburutegia ez ezik, Loiolako Liburutegia ere aski ezaguna du. Bere kasa iker-tu eta idazten jarraitzen du oraindik ere Enrikek.**

● **Eta ondoren, Azpeitian albaitari 50 urte baino gehiago egin dituzu.**

1941ean etorri nintzen, 24 urte nituen garai hartan, 1917an jaioa naiz eta. Ia 1990. urtea arte jardun dun bizibide horretan.

● **Zu Azpeitian albaitari hasi zinen garai haietan, baserria zen bizibide nagusia herrian. Orduan albaitariaren lana nekoso al zen?**

Oso lan nekoso zen. Dena oinez egin behar izaten zen. Azpeitian herriaren alde batetik bestera baserri asko zegoen. Gero bizikletan ere hasi nintzen baserrietara joaten. Ondoren moto bat lortu nuen. Bizikletari jartzeko motoa Italiatik kontrabandean ekarri zidaten. Erromara peregrinazioan joandako monja batek pasatu zidan. Hauek errazago pasatzen baitziren mugan.

● **Nola jakiten zenuen baserriren batean albaitariaren beharrean zirela?**

Gehienetan baserritarrek etortzen ziren albaitariaren bila. Baina auzoetan telefonok baziren: Oñatzen, Nuarben, Matxinbentan, Aratz-Errekan... Eta bitartekoak oinez edo bizikletan etortzen ziren.


● **Azpeitia inguruak, bazterrak, bideak... denak ezagutuko zenituen ba.**

Bai, denak ezagutzen ditut. Bideak, bidezidorrak, bidezaharrak, lokatza-arteak. Denetan ibilia naiz. Gau eta egun, jai eta aste. Bide kontu horrekin, istilu ederrak sortu ohi ziren. Gurdi-bide zaharretan autobideak egiten hasi zirenean, baserritarrek elkar hartu eta euren kontura egiten zituzten. Baina beti izaten zen baserritarren bat bidea egiten parte hartu nahi izaten ez zue-na. Orduan, hark deitzen zidanean errepidetik ezin izaten nuen joan haren baserri-ra, eta oinez joan behar. Hor istilu txarrak ibiltzen genituen, estuasun bat izanda ere ez zizuten uzten errepidetik joaten. Gerora istilu horiek bukatu ziren, Foru Aldundia hasi zen-eta bide horiek egiteko laguntzak ematen. Askatu ziren bideak.

● **Zu albaitari ibili zinen garaian gaitz kez-kagarririk ba al zen?**

Baziren kezka handiak ematen zituzten gaitzak. Animalien gaitzak bi eratakoak izaten dira: batzuk pertsonen itsastan zaizkienak eta beste batzuk animalien artean bakarrik kutsatzen direnak. Garrantzitsuenak gugana itsastan direnak dira, eta asko daude era horretakoak, hogei gaixotasun baino gehiago. Gaixotasun hauek mataderian kontrolatzen ziren. Nik ikusi gabeko okelik ez zen ateratzen mataderitik. Horrek badauka gauza on bat ni hainbeste urtean egon eta kutsatutako animalia bakar bat ere ez zen izan. Ganaduak euren artean zabaltzen dituzten gaitzek kalte handiak egin dituzte. Hemen geneuzkan gaitzen

● **50 URTE ALBAITARI.**
1941. urtean etorri zen Azpeitira herriko albaitari bezala; 24 urte zituen gara hartan Enrike Zurutuzak. Ia 1990. urtea arte jardun zuen albaitaritza bizibide zuela.



“ 1936ko Gerra Zibilean, bolondres albaitarien talderako aurkeztu eta Azpeitian sartu nintzen albaitarien taldean ”

artean bat *napar-miña* zen. Ezagutzen den gaitzik itsaskorrena da. Euli batek ere ekar lezake gaitza. Tartean ere baziren beste zenbait gaitz: *frantses-miña*, ume-galtzeak...

● **Baserriz baserriko ibilian kontu eta istorio ugariren jabe ere izango zinen.**

Bai, asko eta asko. Gainera, ohitura nuen neure lana egin ondoren baserrian bertan egoteko, bertakoen berri jakin, baserrirako aholku onak eman. Pixka bat misiolaritza lana egiten nuen, eta egin beharrekoa da, gainera. Kontu asko jakiten nituen, ikusgarriak asko, lehengo bizimodu zaharrak eta abar. Horren jakinaren gainean zegoen lagun jesuita bat, Aita Goikoetxea. Euskaltzale handia zen eta euskara ondo lantzeko euskaldun garbiekin hitz egitea nahi zuen. Horretan lagunduko ahal nion eskatu zidan; ‘euskaldun garbiak’, gaztelerarik ez zekitenak, baserritarrek baitziren. Horrela bada, nirekin etorri ohi zen hura. Nik baserritarekin hitz egin eta Goikoetxeak magnetofonoan jasotzen zituen berriketaldiak. Aita Goikoetxearekin beste lan bat

“ Ameriketako Estatu Batuetatik bueltan, Gipuzkoan lehen ernalkuntza artifizialak egiten ni izan nintzen ”

ere egin nuen: baserriko eta herriko gaitzizak jasotzea. Asko jaso genituen, eta hauen jatorria aztertzen ere saiatu ginen biok.

● **Albaitaritzako testuak ere idatzi dituzu.**

Azpeitian lanean hasi nintzenean gaitz baten susmoa hartu nuen, hemen ezagutzen ez zen gaitz batena, behiak-eta ernaltzeko izaten dutena. Bibliografia atzeritik ekartzen nuen, orduan muga itxita baitzegoen Frantziara. Paristik pasatzen nituen liburu-rik onenak, diplomatikoen maletetan. Hemengo baserriko seme bat, enbajadorearen auto-gidaria zen Parisen. Alemaniako liburu bat ere ekarri nuen eta han bilatu nuen germena demostratzeko teknika. Gaitz horren inguruan lan handia egin nuen, eta *Ciencia Veterinaria* aldizkarian argitaratu zen. Ernalkuntza artifizialari buruzko beste lan bat ere egin nuen. Gipuzkoan lehen ernalkuntza artifizialak egiten ni izan nintzen. Aurretik Ameriketako Estatu Batuetan izan nintzen; New Yorketik apunteak eta ernalkuntzarako hemen ezagutzen ez ziren aparatu batzuk ekarri

“ Euskara debekatu zuten garaian elizaren babesean Azpeitian antzerkiak egin genituen ”

nituen. Baina Ameriketatik bueltan saioak egin behar eta inork ez zuen ganadurik utzi nahi; ezta pentsatu ere, gainera. Behin, ganadu zale bati ezer esan gabe, bere behia ernaltu egin genion. Txahal hura izan zen lehenengoa ernalkuntza artifizialez jaio zena.

● **Albaitaritzako ikerketa lanak idatzi eta gero, egunkarietan eta aldizkarietan ere idatzi zenuen, ezta?**

Baserritarren artean hitzaldi batzuk ematen nituen eta *Hojas Agricolas*-en ere idazten nuen. Beranduago, *La Voz de España* egunkarian orrilde oso bat eman zidaten. Orrilde oso hori urteetan idatzi nuen. Gero liburu txiki bat ere idatzi nuen baserritarren gainean, esne-behien gainean. Aldizkari askotan kolaboratu nuen, herri batzuetako programetan ere bai.

● **Antzerkia ere probatu duzu.**

Ni behin ere ez nintzen geldirik egoten eta antzerkian ere lan ederra egin genuen. Beti lan desberdinetan sartzen nintzen, euskarazko lanean. Politika ez dut ikusi ere egin nahi. Euskal Herriari eusteko euska- ▶▶

» rari eutsi behar zaio eta kito. Hizkuntzari eutsi behar zaio, hizkuntza baita herriaren arima, eta orain euskara asko entzuten da, ikastolan-eta ikasten da, baina Donostian-eta oraindik ere erdaraz jarduten du jendeak. Euskara oraindik ez da sartu herrian, ezta gutxiagorik ere. Eta gurea beti hori izan da, euskara herrian sartzea eta horretarako dena debekatu zuten garaian, elizaren babesean Azpeitian antzerkiak egin genituen. Bat dezente handia egin genuen: *Pasioa*. Zuzendari lanetan ibili nintzen ni. Gogoan gelditu den antzezlan da, Azpeitian hainbeste aldiz egin eta gero Donostiara salto egitea pentsatu eta izugarritzko arrakasta izan zuelako. Gero ere saiakerak izan dira, berriro egiteko baina gaur eguneko gizarte honetan ez dago zaltetasunik elizarako eta elizgaietarako. Ez litzateke aterako.

● **Eta azkena itzuli eta egokitu duzun liburua 'Etumetako Basajauna' izan da.**

Baso-jaun de Etumeta eleberri historikoa eta erromantikoa da. Historiako gertakizunetan oinarrituta dago, bertan kontaktzen direnak gertatukoak dira. Neuk denak konprobatu ditut. Erromantikoa da, pertsonaien grinak oso gogor azaltzen dituelako. Oso bukaera ona dauka, gainera. Eleberria gazteleraz idatzi zuen Juan Venancio Arakistainek. Bera historialaria eta kazetaria zen; bizibidez, ordea, erregistradorea zen, eta Azpeitian egon zen erregistradore urte dezentetan. Eta orduan idatzi zuen eleberria. Garai hartan liburua oso



Gerra Zibilean Burgosko koartel nagusian albañtari jardun zuen. Enrike, mandoa sendatzen.

ezaguna omen zen, baina gaur egun desagertuta dago, esku batek kontatzeko adina ale daude. Eleberrian aipatzen diren gertakizunak Azpeitian kokatuak daudenez, eta nire iritziz, eleberri eder hori berriro argitaratzekotan euskarara itzulita azaldu behar zen. Asmo horrekin eraso nion lanari eta, egia esan, niretzat lan gogor samarra baina atsegina izan zen. Izan ere, horrelako eginkizun batek, han eta hemen galdeketa eta kontsulta ugari egin beharra sortzen du, eta hori norberarentzat aberatsgarria da. Adibidez: Loiola, Enparan eta Odriako etxearen historiak gauza asko

ikasi ditut. Beotibarko eraso armatuaren berri ere berdin. Liburu honek bukaeran daukan gehigarria nik neuk idatzia da, irakurleak eleberria hobeto uler dezan betiere.

● **Gaur egun jubilatua zaude. Jarraitzen al duzu idazten?**

Garrantzizko lanik ez darabilkit eskuartean, baina apurtxo bat jarraitzen dut, bai. Inoiz aldizkarietan orrialde bat edo beste osatuz. ●

Elkarrizketa oso-osoa www.uztarria.com helbidean aurki daiteke

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel. 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net



- > DONNA KARAN NY
- > SANDOZ
- > LOTUS
- > SEIKO
- > VICEROY fashion
- > BITXIAK
- > KONPONKETAK
- > GRABAZIOAK



Plaza Txiki, 7
943-812367
disdira@wanadoo.es

datue

15.000

bonbilla izango dira piztuta Gabonetan. Alde zaharrear eta auzoetan jarrita dauden Gabonetako argiak dira horiek denak.

dato historikue

160

urte dira Azpeitiko Parrokiaren ondoko garbitokia eta iturriak eraiki zirela. 1842an Olazabal familiari esker eraiki ziren.

esaldiye

“Pentsamendu ahula eta pentsamendu bakarra pentsatzeari uko egiteko erak dira”

Alfonso Sastre
(Idazlea)

liburutik ttak

“Bakarrik, zer da geu izatea ere: zer da euskalduna izatea? Honelako auziak eztabaidatzen ziren 67-68 aldera gure artean, eta irakurleak maiz irakurria du, gerra ondoan ‘mundu berria’ esanez eraiki den mundu zaharra arbuia nahi zuen gazteriarren eztanda urteak izan direla horiek norberetasunaren errebindikaziokoak *aparatuaren* aurka, irudimenarenak *razionalitatearen* aurka. ‘Nik NI izan behardut, ni euskaldun hau naiz, bizi naizen Euskal Herrian hori geroz eta zailagoa da ordea’, protestatzen zuen Rikardo Arregik”.

Joxe Azurmendi ‘Oraingo gazte eroak (Gogoetak ETArean sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz)’. Luma argitaletxea. 1998. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



BEHARKO AGINDUA BETE!

Fernando VII.a hil aurretik agertu ziren Euskal Herrian lehen talde armatu karlistak, eta hil zenean mugimenduak indar berezia hartu zuen. Lehenengo altxatutakoan artean bi azpeitiar zeuden: Bernardo Iturriaga eta Joxe Inazio Iturbe.

1833ko urriaren 10ean, 09:00etan, herrian Iturriaga komandantearen esanetara aurreneko talde karlista agertu zen lehen neurriak hartuz: herriko alkateari bi mila erreal eskatu eta Diputazio berri bat izendatzea aginduz; ordukoak ihes egin zuen Tolosara. Diputatu nagusi Esteban Hurtado de Mendoza jauna izendatu zuen, laguntzaile Joxe Santos Arratabe, lurraldeko diputatu Juan Bautista Altube eta teniente Baltasar Oiarzabal jarritz. Hurrengo egunean, berriz, izendatutako Diputazioak bilera egitea agindu zuen.

Baina, Tolosara ihes eginiko Diputazioak, urriaren 17rako batzarrerako deialdia egin zuen, Isabel II.aren alde agertu eta probintzian Carlos V.aren alde gerta zitekeen altxamendua hartzeko.

Urriaren 12an, Azpeitian, Iturbe jaunak gipuzkoarrei dei egin zien, esanez Tolosan zegoen Diputazioak arriskuan jartzen zuela probintzian askatasuna eta debekatu egin zien herrietako ordezkariari bertaratzea. Azpeitiko Udalararen egoera nahiko larria zen, bi aldetara jokatu beharrean baitzen, agintari liberalen alde egin beharrean eta karlisten aginduak bete beharrean. Bestalde, urriaren 13an Iturbek azpeitiar gazteek armak hartzea eskatu zuen. Ondoren beste agindu batzuk ere zabalduko ziren...

Dena dela, herriaren ordezkariak ziren Miguel Mari Alzibar eta Joxe Etxeberria jarri ziren

garai bateko Azpeitiye ...Sabin Arrizabalagak kontatua

Gabonetan familia elkartuta

Garai batean ez zegoen gaur adinako opari eta luxurik. Hala ere, Gabon gaua aitzaki ederra izaten zen familia elkartzeko

Nerea Aranburu

Urteko gau berezietakoa izan ohi da Gabon gaua. Familia asko eta asko mahai baten inguruan biltzen dira, janari goxoa aurrean dutela. Urteekin gauzak aldatuz doaz, ordeam eta ohitura horiek ere izan dituzte aldaketa horiek. Sabin Arrizabalagaren esanetan, “garai haietan, diru askorik ere ez zegoen eta gauza asko ezin ziren egin. Orduko Gabon jaiak, gaurkoekin alderatuz behintzat, etxean igarotzeko festak izaten ziren”.

Gaur egun oso arrunta da Gabonetarako janari garestiak erostea. “Garai batean ez zegoen gaur egun bezain besteko luxurik. Oilaskoa jan nahi bazenuen, Gabonen zain egon behar zen. Turroia jatea nahi bazenuen, berdin. Orokorrean, zerbait berezia jateko Gabonak iritsi arte egon behar izaten genuen, bestela ez baitzegoen egun arruntetan jateko ez aukera ez dirurik”, dio Sabinekin.

Gabonetan oso ohitura handia zegoen olio azak jateko, “eta gure etxean Gabonetan beti lehen plater bezala olio azak izaten ziren. Ondoren, bigarren plater bezala oilaskoa jaten genuen. Eta postre bezala, ohitura handia zegoen *torrada*-k jateko. Oso postre erraza eta goxoa izaten zen. Gaur egun, berriz, inori ez zaio entzuten horrelakorik”, dio Sabin Arrizabalagak.

FAMILIA OSOA. Gabonetan “derrigorrezkoa” izaten zen familia osoa biltzea. Urte guztian gutxi ikusi arren, Gabon gauean beti elkartzen ziren familiak gaua elkarrekin igarotzeko. “Nik aita azkoitiarra nuen —dio Sabinekin—. Orduan, batzutan haren familiarengana joaten ginen, eta beste Gabon batzutan beraiek etortzen ziren guregana. Familiak elkar txandatur joaten ginen, baina beti elkarrekin egoteko, Gabonak elkarrekin igarotzeko”. Orduan ez omen zen Gabonetan inor kalera ateratzen,



Karlisten egoltza zena, garai hartako Frontoi Txikiren ezkeraldeko horma zen. / HISTORIAS DE AZPEITA LEHURIA

● **BI AZPEITIAK.** 1833. urtean altxatutako lehen karlisten artean bi azpeitiar zeuden: Bernardo Iturriaga eta Joxe Inazio Iturbe

Tolosarako bidean Diputazioak deitutako batzarrera joateko. Baina talde armatu karlista batek geldiarazi eta ezaugarriak kenarazi zizkieten, bakoitzari lau tiro emango zizkiela esanez etxera itzultzen ez baziren ahalik eta azkarraren. Beharko itzuli, eta azkar, gainera!

xapo euskerie

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

FABOREZ...

Kepa, Mirenekin hika jardun beher dekenien neskie dala kontuen hartu.

... baten batek "juten al gera tabernara?" galdeutakuen "hola ez naun/k jungo!" erantzun.

... urtieki betetzen ditunai zorionak eman, baina "zorionik" ez ospatu.

... jendie, gauzek edo dana dalakue ikusi eta maitte, baina sekule ere ez jendie eta gauzei.

...**AzpeitiyEn** (*Azpeitian*) ibili, **Azpeitiko** kalietan, eta ez *Azpeitiyeko* (*Azpeitiako*) kalietan.

...*baite* eta *ere* bikote iraunkorra die, baiño tartien seme-alabak dituztela beti (**Baite** eta **ere** batera ibili beher omen dituk. **Baite zea ere!!**).

...egune idazterakuen goguen izen Gabon eskien **abenduen 24en** erteten degula, eta ez abenduek 24en. Abenduen beti, ez dizienbrien.

...aintzakotzat hartu batzuten **egon** egiten gerala eta beste batzuten, berriz, **jardun**.

...**zenbat** nekau geran esateko **asko edo gutxi** ibili, baina ibiliye **zenbatekue** izen dan esateko **luzie edo motza** erabili.

...kontuen izen **neriek** direnak badirela, baina baita **guriak** diren gauzak ere.

...gauzak batzuk botatzen baditugu ere, sekula **ez degu siestaik botatzen**.

...antolakuntzan parte hartu beherrien, hobe da **antolatzen** parte hartzie.

...noizik eta behin libururen bat euskeraz **letziek** ez du begirik okertzen,

...eta, mesedez, **EUSKERAZ** hitz egin.

Eskerrik asko eta adiyo.



Periko Motxala, Gabonetako pertsonaia.

“Gure etxean Gabonetan beti lehen plater bezala olio azak izaten ziren”

Sabin Arrizabalaga



denak etxean gelditzen ziren. “Urte haietan ez zen kalera irteten. Gaur egun, aldiz, jende askok kalera irteteko ohitura du. Orduan etxe-ko giroan egiten zen dena. Jendeak txikiteo garaian irteten zuen kalera, baina zortzi eta erdiak, bederatziak aldera denak etxea joaten ziren afaltzera. Gero, afalondoan denak etxean egoten ziren, kartetan jolasten, hitz egiten...”

Oparien kontuan ere ez zegoen gaur egungo gehiegikeriarik. “Gure etxean, beti Erregetan egiten ziren opariak, orduan ez zegoen-eta Olentzerorik. Baina opariak ere mugatuta izaten ziren. Orokorrean, gure etxean behintzat, norbait zerbaiten faltan bazegoen, hura oparitzen zitzaion hari. Adibidez, oinetakoak behar bagenituen, oinetakoak izaten genituen opari. Mutil kozkorrak ginen garaian, berriz, askotan gozokiak izaten genituen opari”.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ORINAK ETA BITILIGOA

Pertsona asko ikusten ditut orinengatik kezkatuak, minbizia bilakatzen direla asko hitz egiten baita. Gehienetan, eguzkiaren izpien eraginez sortzen dira edo, gutxienez, gehitzen dira, batez ere azal fina edo ile horia edo gorria duten pertsonengan. *Efelides* izenez ere ezagutzen ditugun azaleko lesio hauek, onera egiten dute neguan.

Familiako herentziak ere zeresan garrantzitsua du orinen sorreran. Ezjakin batentzat zaila da diagnostikoa egitea; horregatik, mediku batengana joatea aholkatzen dugu. Zailtzarik ez dagoenean, medikuaren kontsultan egiten den tratamendua oso samurra da.

Disnomia edo azaleko pigmentazioaren arazo bat da bitiligoa eta orban zuri bezala agertzen da. Eskugainean eta eskumuturretan gehiago azaltzen dira. Orban hauek irregular-

tasunez eta apatatsu hazten dira. Kolore zurriak, gorputzaren gune horretan, ez duela eguzkirik hartu adierazten du.

Benetan bitxia da batzutan, orina erdian bitiligoaz inguraturik ikustea; kontrastea nabarmenagoa da. Herentziaren faktoreek zerikusi handia dutela esan ohi da.

Beti bezala, medikuek sorburua ezagutzen ez dutenean, tratamenduek huts egiten dute. Probatutako sendagaiak emaitza ezberdinak izan dituzte, inoiz ez behar bezain egokiak; eta, kasuren batean, orban zurriak, prestatutako kosmetikoekin estali behar izaten dira.

● **BITILIGOA.** Azaleko pigmentazioaren arazo bat da eta orban zuri bezala agertzen da

musikie

'III. GAZTE LEIHO' MUSIKA LEHIAKETA

III. Gazte Leiho maketa lehiaketa antolatuta du Gure Irratiak, Euskal Kultur Erakundeak, SACEM eta Agorila disketxeen partaidetzarekin. Gazte Leiho lehiaketan Euskal Herriko edozein musika talde berrik parte har dezake. Rock-heavy eta folk estiloei irekia da. Eta lehiakideek aurretik gisa horretako lehiaketarik irabazi gabeak izan behar dira eta ez dute CDrik plazaratua eduki behar. Lehiaketan parte hartzeko, hiru gai euskaraz dituen musika maketa aurkeztu behar da, musika eta testuen sortzaileen izenak adieraziz.

LEGEN BELTZA ETA.

Abenduaren 20a baino lehenago bidali behar da Gure Irratiaren helbidera (Gure Irratia, 18 rue Poissonnerie karrika. Baiona). Lehiaketa honen aurreko edizioetan Azpeitiko bi musika talde emaitza politak lortutakoak dira: I. Gazte Leiho lehiaketan Segabathor taldea hirugarren gelditu zen, eta iaz bigarren postua Legen Beltza taldeak lortu zuen.

pasadizue

GABON GAUA LOS ANGELESEN

● **XABIER EUZKITZE:** "Mikel Mendizabal eta biontzat etxetik kanpo igaro behar genuen lehen gabon gaua zen [1995ean, Los Angelesen). Lagun mordoska bildu ginen Bidartarren mahaira. Afa-lostean berehala hasi ginen kantuan. Ez gu bakarrik, ordea. Alejandro Etxeberria, Baztanen sortua da. Gipuzkoanoak harro antxean hasi ginen, baina hark xehatu gintuen. Ez naiz brometan ari! Guk adina edo gehixeago balio zuen. Nekez ahantziko zaigu gabon gau hura!".

'Bertsolari' aldizkaritik hartua. Bertsozaleak Kultur Elkarrekin argitaratua. 1996. urtea, 21. zenbakia.



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



Juan Jose Olaizola

943-025319 - 679106753

e-mail: mtea@euskalnet.net

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatua aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe 13 Tel. 943.15.70.13 AZPEITIA

NEW YORK HANKAPEAN

Joxe Agustin Lizarralde munduko maratuirik ospetsuenean hartu zuen parte azaroaren 3an, eta “ametsa beteta” eta liluratuta itzuli da hango giroa ikusita

Enelkaltze Esporak

Azaroak 3. New York. Goizeko zazpirak. Lau gradu. 32.000 lasterkari maratoiko irteera puntuan. Haien artean, azpeitiar bat: Joxe Agustin Lizarralde. “Bai, han ginen proba hasi baino lau ordu lehenago irteera puntuan, antolatzaileek behartu egiten zaituztelako”. Kafea, pastak... zituzten irteera puntuan, “baina egundoko ilarak zeuden eta ez genuen ezer hartu”, dio Lizarralde. Azkoitiar lagun batekin batera irten zuen New Yorken —Alberto Zufiriarekin— eta beste dozena bat euskaldunekin ere bildu zen. Guztiek entzun behar izan zuten proba hasiera baino lehenago Ameriketako Estatu Batuetako ereserkia. “Jarri zuten Frank Sinatra altu-altu eta han egon ginen noiz bukatuko”. Ereserkia amaitu, kainoiak jo eta 11:15ean hasiera. “Ametsa egia bihurtzen hasi nintzen”. Eta ondo bukatu zuen: 3.15.06ko denbora eta 1.456. postua (%95ek bukatu zuen).

Ondo prestatu baitzuen maratoia. “Baneramatzan urte batzuk karrera horrekin pentsatzen. Orain dela urtebete berotu ginen eta halaxe eman genuen izena”. Maratoi horrek muga bat izaten du partehartzaile kopuru aldetik, eta 30.000 inguruan jartzen dute muga hori. Joxe Agustinek, ordea, ez zuen arazorik izan dortsala lortzeko; nahiz eta aurretik inoiz maratuirik korritu gabea zen, Behobia-Donostian iaz egindako 1.18.22ko denbora nahikoa izan zuen.

Azkeneko hiru hilabeteak bereziki prestatu zituen, prestatzaile fisiko baten aginduetara. “Oso beharrezkoa da hori, maratoia ez delako edozer gauza”. Hogeita hamargarren kilometroari zion beldurra Joxe Agus-

tinek, “hortik aurrera zer ote dago?” galdeztzen delako eta ez zekielako aguantatuko al zuen. “Baina primeran aguantatu nuen, nik uste baino errazago”.

BROOKLYN AUZOA. Txundituta itzuli da New Yorketik. “Sinestezina da hura. Izugarria! Ez zait inoiz ahaztuko bigarren milian Brooklynen sartu ginen unea —han miliaka kontaktzen da; 26,2 ditu maratoiak—; beltzak nagusi diren auzoa da, dena bete-betea zegoen, eta nola animatzen zuten!: abesten, musika joz, bakoitza bere antzezpena eginez... Harrigarria! Gero judutarren auzoan sartu ginen, eta hauek ezta animatu ere, eta, gainera, gutxi zeuden ikusten; eskerrak milia bateko auzoa zen...”.


“Film” bat balitz bezala definitzen du Joxe Agustin Lizarralde New Yorkeko maratoia. “Pelikula batean banengo bezala sentitu nintzen”.

“**Film batean banengo bezala sentitu nintzen maratoian, filmetako gauzak eta tokiak ikusten nituelako**”

Joxe Agustin Lizarralde
(lasterkalaria)

tzen, pelikulatako gauzak, tokiak ikusten nituelako lasterka ari nintzen bitartean. Eta dena da hain handia! Akordatzan naiz nola esan nion azkoitiarrari zubi batetik jaitsi eta Queenboro etorbidean sartu ginenean: ‘Ikusten al duk hau, Alberto? Hau ez duk bukatzen! Hau ez duk Loiolako *avenidie!*’. Egun handia da han, baina bertako gutxi irtetzen du”.

Beretzat ere “egun handia” izan zen, eta atzera joateko tentatuta dago. *Hasi* da prestatzen, azaroaren 24an ere Donostiako maratoia korritu (3.18.00) baitzuen! ●



148 AZPEITIAK BEHOBIA!

Azaroaren 10ean 148 azpeitiarrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa, eta lasterkalarien batez besteko denbora ez zen nolana hikoia izan: 1:38:12koa

AZPEITIAKREN SAILKAPENAK BEHOBIA-DONOSTIA

1. Xabier Iturralde	01:07:57
2. Jexux Zelaia	01:11:54
3. Jose Manuel Sasieta	01:12:34
4. Jon Garate	01:14:44
5. Luis Hurtado	01:15:10
6. Carlos Paredes	01:16:41
7. Haritz Arozena	01:17:40
8. Iosu Badiola	01:20:46
9. Jon Roteta	01:20:48
10. Jokin Egiguren	01:21:51
11. Garikoitz Uzkudun	01:22:09
12. Jose Luis Albizuri	01:22:10
13. Josetxo Gomendio	01:22:11
14. Iñigo Medinilla	01:22:27
15. Haritz Iturbe	01:22:40
16. Ibon Aizpuru	01:23:11
17. J. Ignacio Azpiazu	01:23:24
18. Arkaitz Segurrola	01:23:25
19. Dioni Etxeberria	01:25:08
20. Aitor Urrestilla	01:25:21
21. Aitor Olabide	01:26:13
22. Iñigo Orbegozo	01:26:21
23. Mikel Arregi	01:26:31
24. Andoni Aramendi	01:26:56
25. Jorge Viles	01:27:09
26. Pello Bereziartua	01:27:47
27. Julen Etxeberria	01:27:51
28. Joseba Olazabal	01:27:53
29. Koldo Okariz	01:27:53
30. Iñaki Egiguren	01:28:11
31. Iñaki Gurrutxaga	01:28:22
32. Iosu Gurrutxaga	01:28:50
33. Joseba Aizpuru	01:28:55
34. Antton Azpiazu	01:29:01
35. Garikoitz Garate	01:29:07
36. Xabier Lasa	01:29:08
37. Iban Arregi	01:29:24
38. Juan Peña	01:29:27
39. Imanol Aizpuru	01:29:28
40. Aitor Goenaga	01:29:28
41. Jon Agirre	01:29:31
42. Josu Izagirre	01:29:34
43. Mikel Itulain	01:29:35
44. Ibon Oiarzabal	01:30:12
45. Igor Martija	01:30:15
46. Alex Sudupe	01:30:22
47. Juan Ignacio Arregi	01:30:44
48. Miguel Angel Aizpuru	01:30:44
49. Juanjo Lapeira	01:30:55
50. Gurutz Saez de Bikuña	01:31:04
51. Jose Mari Larrañaga	01:31:08

52. Mikel Olaizola	01:31:30
53. Asier Elustondo	01:31:30
54. Jose Antonio Arrue	01:31:56
55. Iñigo Odriozola	01:32:16
56. Jon Gurrutxaga	01:32:35
57. Aitor Olaizola	01:32:36
58. Miguel Angel Urtuzaga	01:32:43
59. Enekoitz Esnaola	01:32:45
60. Jesus Agirregomezkorta	01:32:58
61. Iñigo Segurrola	01:33:30
62. Aitor Orbea	01:34:00
63. Iosune Unanue	01:34:05
64. Ion Aramendi	01:34:10
65. Ricardo Donazar	01:34:14
66. Jon Leon	01:34:47
67. Jexux Arakistain	01:34:50
68. Unai Lazarobaster	01:34:51
69. Iban Amenabar	01:35:09
70. Iñaki Olaizola	01:35:16
71. Andoni Araujo	01:35:17
72. Martxel Agirrezabalaga	01:35:31
73. Aitor Gurrutxaga	01:36:20
74. Amaia Albizu	01:36:20
75. Jaime Otaño	01:36:58
76. Iñigo Azkue	01:37:20
77. Julen Lizeaga	01:37:36
78. Ana Alkorta	01:37:38
79. Iñigo Korta	01:37:50
80. Joakin Arzallus	01:37:52
81. Jose Ramon Abaunz	01:38:09
82. Jon Astiazaran	01:38:16
83. Arnategi Guenbe	01:38:25
84. Enekoitz Epelde	01:38:27
85. Aitor Arregi	01:39:27
86. Gaizka Aranguren	01:39:49
87. Jose Mari Goenaga	01:40:08
88. Lierni Odriozola	01:41:05
89. J. Agustin Agirre	01:41:10
90. J. Luis Legarda-Ereño	01:41:18
91. Iosu Olaizola	01:41:22
92. Jesus Bereziartua	01:41:23
93. Mikel Bastida	01:42:14
94. Nagore Aramendi	01:42:23
95. Sara Rodriguez	01:42:24
96. Xabier Aranburu	01:43:06
97. Aitor Bastida	01:44:13
98. Ohiana Unanue	01:44:13
99. Aitor Arriaran	01:44:39
100. Nerea Lopetegi	01:45:20
101. Guillermo Alonso	01:45:20
102. Miguel Angel Arbues	01:45:33

Iosune Unanue

Behobian lehen emakume azpeitiarra

“Niretzat Behobia ez da hain berezia”



Iraurgi taldean urte askoan ibilia da. Zazpi urte geldirik egon da eta aurtengoa berriro hasi da lasterketa.

● **Aurtengoa berriro lasterkari ekin eta Behobian emaitza ona egin duzu, ezta?**

Orain lasai-lasai aritzen naiz entrenatzen, beste era batera hartzen dut. Bi-hiru neskin batera entrenatzen naiz. Hauek Behobian irteteko gogoia zuten, baina ez nuen usate proba horrela egiteko gai izango nintzenik (1.34.05).

● **Aurretik, Behobia-Donostia lasterketa inoiz egin al zenuen?**

Lau bat alditan edo. Baina niretzat Behobiako lasterketa ez da hain berezia. Baina jendearentzat bada zerbait.

● **Urte-zahar egunean Azpeitian San Silvestre lasterketan parte hartzeko asmorik bai?**

Gustatuko litzaidake irtetea lasterketa horretan, baina ez

103. Estebe Orbea	01:46:21
104. Enekoitz Etxeberria	01:46:26
105. Javier Alberdi	01:46:33
106. Amaia Caballero	01:46:50
107. Mariano Sagardogi	01:47:21
108. Ignacio Egiguren	01:47:42
109. Jesus Mari Gurrutxaga	01:48:10
110. Gurutz Aldalur	01:48:11
111. Iñaki Bastida	01:48:20
112. M ^a Mertxe Urtuzaga	01:48:34
113. Antonio Sanz	01:48:41
114. Aitor Orbegozo	01:48:54
115. Jon Egiguren	01:49:06
116. Mikel Rezabal	01:49:13
117. Xanti Rodriguez	01:49:44
118. Iñaki Arzamendi	01:49:51
119. Iñigo Karrera	01:49:52
120. Jagoba Aldalur	01:49:57
121. Jose Mari Arregi	01:49:58
122. Gorka Agirrezabal	01:50:42
123. Aitor Unanue	01:51:25
124. Ander Uranga	01:51:25
125. Iñaki Etxeberria	01:51:33
126. Julio Gallego	01:52:23
127. Aitor Odriozola	01:52:41
128. Julio Gallego	01:52:49
129. Eneko Goenaga	01:52:50
130. Idoia Etxeberria	01:53:39
131. Roxa Etxeberria	01:53:40
132. Oskar Osinalde	01:53:41
133. Kraux Guridi	01:53:44
134. Joseba Bastida	01:54:08
135. Santiago Adebak	01:54:55
136. Leire Zeziaga	01:55:19
137. M. Jose Gorrotxategi	01:57:43
138. Imanol Orbegozo	01:57:44
139. Jesus Mari Epelde	01:58:34
140. Juan Mari Rezabal	01:58:34
141. Joseba Altuna	01:58:43
142. Arantxa Odriozola	01:58:47
143. Aitor Cordoba	01:59:46
144. Elixabete Etxeberria	02:01:23
145. Julian Kortajarena	02:02:04
146. Iñigo Altuna	02:02:59
147. Jabier Altuna	02:03:00
148. Fernando Loiti	02:06:36

DATU INTERESGARRI BATZUK

● Azpeitiarren batez besteko denbora: 1:38:12 ● Azkoitia: 10.500 biztanle, 53 lasterkalari ● Arrasate: 24.600 biztanle, 111 lasterkalari ● Tolosa: 18.000 biztanle, 106 lasterkalari.



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzubia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzubia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria, 34 Tel. 816179

J. Artetxe, 14 Tel. 814507

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe,11 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitarate, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitarate, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Basazabal

● **LANAK EGIN DIRA.** Ikus daiteke: Basazabalen berritze lanak eginda daude. Zenbat gehiago falta da?



Azterketen ondorioa: kultur etxea behar da

Herrian kultur ekipamenduen eta beharren inguruko bi azterketa behintzat egin dira azkenaldian. Aurrena, 1999an; Uztarría Kultur Koordinadorak lokalei buruz hilabeteetan landutako txosten bat aurkeztu zuen. Txostenean herrian kultur etxe baten beharra zegoela azpimarratzen zen. Proposamen bat ere zehaztu zen kultur etxearen izaera eta funtzionamendua inguruan. Bigarren azterketa, udalak aginduta, IKEI enpresak egin zuen. IKEIk egindako azterketak ere herriko kultur mugimenduaren eskari nagusia kultur etxea zela adierazten zuen.

● **IKEI (2001):**

● **Kultur etxea.** *Behar eta Kultur-azpiegituren Azterketa*-n Azpeitiko "kultur mugimenduaren eskari nagusia kultur etxea" dela esaten du.

● **Kultur programazioa.** IKEIren azterketaren arabera, taldeen artean kultur programazioak hiru kritika ditu: eskaintza ez da zabala; urtero programazioa errepikatu egiten da; eta udalak protagonismo handiegia du kultur programazioa egiteko orduan.

● **Kultur politika.** Azterketan kultur politikaren beharrak zehazten dira: herrian la-

IREKIKO AL DA KULTU



Baietz ematen zuen, baina oraingoz ez da kultur etxerik irekiko Basazabalen. Asko luzatzen ari da gaia, eta egoera ez da ona

Iban Arregi

Aurten ere dirurik ez kultur etxeko obrak egiteko", zioen aldizkari honen erreportaia baten tituluak 2001eko maiatzeko alean. Urte eta erdi beranduago, dena berdin. Udalak, beste behin, kultur etxeko obrak egiteko dirurik ez dagoela esan du; ofizialki ez, baina hori esan du Kultura Batzordeak. Hala, kultur azpiegituren egoerak bere horretan segituko duela dirudi; minimoen azpitik.

1984-1987an *Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Kultur Ekipamenduen Programa*-n Basazabal eraberritu eta kultur etxea irekitzeko asmoa agertu zen; orduetik, Basazabal kanpotik berritu egin zen, eta dirua gastatu horretan. Garai hartan, *Azpeitiko 1983-87* liburua argitaratu zuen Azpeitiko EAJK, eta liburu horretan ere Basazabalen kultur etxea irekiko zela iragartzen zen: "Azpeitiko hainbeste talde kultural, hainbeste ekintza, eta Kultur Etxerik ez. (...) Azpeitiko kale erdian dugu Baso Zabal etxe ezin hobea. Baina etxe honek bazituen be-

re oztopoak, ez baita gurea, Espainiako Haziendako Patrimonia baizik, eta ez da lan erraza izan, hor zegoen korapiloa askatzea. Hala eta guztiz, orain esan dezakegu gureganatzeko momentuetan gaudela, eta hori gertatu bezain azkar egingo diogula bere prestaketari. Ez gara egongo, ordea, bitartean lo, aurreproiektuak eginak ditugu, eta horrela ikusten dugu bere erabilketa...". Udalak "gureganatu" zuen Basazabal. Baina gaia ahazten joan zen.

Eta herrian gaia ahaztuxe zela, Uztarría Kultur Koordinadorak lokalei buruzko txostena egin zuen publiko 1999ko martxoaren 20an, eta txostenean kultur etxe baten "beharra" azpimarratu zen, eta proposamen bat ere egin zen etxearen izaera eta funtzionamendua azalduz. Uztarría ere Basazabal ikusten zuen —eta du— leku egoki bezala. Herriko talde askok bat egin zuten Uztarríaen proposamenarekin.

2001eko martxoan *Behar eta Kultur-azpiegituren Azterketa* egin zuen herrian IKEI soziologia enpresak, Azpeitiko Udalak aginduta. 21 guneren egoera eta erabilpe-

“Kultur taldeen eskari nagusia kultur etxea da”

IKEI

“Lokalen txostenean kultur etxe baten beharra ikusten da”

Uztarrria

nean ari diren kultur talde eta elkarten beharren azterketa; kultur programazioaren azterketa eta kultur espazioen eta hauen erabileraren inguruko azterketa.

● **UZTARRIA KULTUR KOORDINARA** (1999)

● **Kultur etxea.** Lokalei buruz egindako txostenean kultur etxe baten “beharra” azpimarratzen da. Kultur etxeak Basazabalen izan behar duela zehazten da.

● **Herriko taldeak.** Udalak taldeen lana “errekonozitu” egin behar du. “Taldeen kultur etxeko estatutuak zehazterakoan parte hartuko dute eta zer-nolako azpiegiturak behar diren galdetuko zaie. Kultur Etxeko Antolaketa Taldea sortuko da eta taldeek ordezkari izango dute bertan”.

● **Jabetza eta kudeaketa.** “Kultur etxearen jabetza Udalarena izango da eta “kudeaketaz Antolaketa Taldea arduratuko da”.



ETXEA?

galderak

1. Zergatik ez dago dirurik Basazabalen kultur etxea irekitzeko?

2. Udalak zergatik egin du orain atzera Basazabalen gaian, eragile denak ados samar zaudenean?

3. Noiz eta nola emango zaio konponbidea herriko kultur azpiegituren gaiari? Emango al zaio?

na aztertu zuen IKEIk, 16 kultur talde edo elkarterekin egon zen, zortzi elkarrizketa egin zituen, eta 400 herritarri inkestak egin zizkion. Besteak beste, honoko ondorio nagusia atera zuen: “Herriko taldeek batik bat kultur etxe baten beharra ikusten dute”. Uztarriak bi urte lehenago zioen berbera.

BAIETZ ZIRUDIENEAN... 2002ko ekainaren 18an, *El Diario Vasco*-ren Azpeitiko kartan esaten zen udalak kultur etxea Basazabalen irekitzeko asmoa zuela. Informazio hori Azpeitiko Udalak pasatuko zion DVri, jakina. Uztailaren bukaeran, Udal Kultura Batzordeburuak txosten bana eman zien herriko taldeei, asmo hori bera berretsiz, kultur etxea Basazabalen irekitzea zela asmoa berretsiz; eta, gainera, taldeekin hitz egiteko prest ageri zen, etxea nolakoa izango litzatekeen zehazteko. Zera zioen txosteneko pasarte batek: “Kultur etxe baten beharra sumatzen dugu, eta honekin batera dugun bilbe sozio-kultural osoaren nola-baiteko zentralizazioa. Leku egokitzat Basazabal ikusten dugu (...)”.

Orain, beste behin, “aurten ere dirurik ez kultur etxeko obrak egiteko” esan du, modu ez ofizialean, udalak, Uztarriak jakin duenez. Beharra ikusten omen da, baina dirurik ez omen... 1984an bezala, kultur azpiegitura horrek ez du inbertsiorik merezi. Hala, kultur azpiegituren egoerak bere horretan segituko duela dirudi: minimoen azpitik. ●

argi irri e
oparidenda
aukera zabalena zure eskura

alde zaharra
Azpeitiko
alde-zaharreko
merkatariaren elkartea

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

2.2. Erosi

- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

• **Jose Artetxe.** 12. zenbakian lehen pisua. Telefonoa: 943 - 15 07 51.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

• **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

• **Agirre auzoa.** 5. zenbakian. Telefono zenbakia: 943 - 81 29 28.
• **Garmendi.** Telefonoa: 943 - 81 30 19.

3.3. ERRENTAN EMAN

• **Salbe auzoa.** 6. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 29 15.
• **Salbe auzoa.** Telefonoa: 943 - 81 27 23.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

• Etxeko lanak eta haurra

• Umeak zaindu.

Emakume bat eskaintzen da haurrak eta adinekoakzaintzeko. Telefono zenbakia: 678 07 52 30.

• Psikopedagogia.

Psikopedagogian lizentziatua haurrei laguntzeko eskaintzen da. Telefonoa: 943 - 81 21 92.

• Pisua salgai.

Eliz kalean, 19. zenbakian pisua saltzen dut. Hirugarren solairua. Telefono zenbakia: 617 74 67 84..

zaindu. Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Telefonoa: 943 - 15 07 10.

4.2. ESKAERA

• **Ordukako lanetarako.** Emakume bat eskaintzen da ordukako lanak egiteko. Telefonoa: 619 15 01 16.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

• **Furgoneta.** Volkswagen Transporter. Hamar urte ditu eta kanpinerako prestatuta dago. Egoera onean. Telefonoa: 610 68 53 44.

7. DENETARIK

7.5. BESTELAKOAK

• **Klase partikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta alor guztiak. Telefonoak: 943 - 81 63 97 edo 657 77 74 24.
• **Ingelerako klaseak.** Maila guztiak. Talde txikiak. Telefonoa: 943 - 15 01 93.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Lan eskaintza bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa zentro laguntzaile hauetan:

SERBILAN 943- 15 70 66

IRAURGI LANTZEN 943 - 85 11 10

• **Kamioi gidaria.** Zumaian. C1 eta E gida baimenak izatea eta Urola bailaran bizi izatea eskatzen da. 92635/2 eskaintza.

• **Denbora libreko eta aisialdiko begiralea.** Donostian. Mutila izatea eta denbora libre eta aisialdeko titulua izatea eskatzen da. 92474/2 eskaintza.

• **Informatikako eragilea.** Donostian. Informatikaren ezagutza eta gutxienez urtebeteko

esperientzia izatea eskatzen da. Unix, Aix, Oracle, Novel eta NT herramintzen ezagutza edukitzea eskatzen da. 92429/2 eskaintza.

• **Administraria.** Donostian. Gutxienez urtebeteko esperientzia eskatzen da. 90263/6 eskaintza.

• **Kalitate aholkularia.** Donostian. Kimikan, biologian, geologian edota industria ingeniari-tza lizentziatua izatea eskatzen da. 92011/2 eskaintza.



PILDAIN
inmobiliaria

lizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es



Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

ODRIOZOLA ARDOAK



Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 8500 11
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.: 15 13 16
AZPEITIA



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia:
943 15 16 40

SONE - MARKA



estetiko
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

LUBA

- AHOHKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 76 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.asa@euskalnet.net



argazkilayek: Uztarrria (1) eta Benantxio Irureta




Urte bat, bi instant

● **2001, AZAROA.** Mendi istripuz Pumorin hil ziren Beñat Arrue azpeitiarrari eta Iñaki Aiertza aizarnazabaldarrari omenaldia egin zitzaien, Aizarnazabaletik Aizarnara mendi ibilaldiarekin eta Izarraitzen egindako jaialdiarekin.

● **2002, URRIA ETA AZAROA.** Annapurnako eta Everesteko *trekking*-ak egin dituzte zenbait azpeitiarrek. Tartean, iaz Pumorin gelditu zirenen senideak eta lagunak. Beñati-eta oroitarri bat jarri ziteen Pumoriko beheko kanpoan.





1. OMENALDIA.

Iaz, azaroaren 3an, Pumorin hil ziren Beñat Arrueri eta Iñaki Aierzari egindako omenaldiko irudiak dira. Uztarriak jaso zituen irudi horiek.

2. SUKA.

Benantxio Irureta: "Suka, iazko Beñaten laguna".

3. OPARIAK.

"Periche herriko hurrei opariak eta eskolarako materiala oparitzen".

4. PASANG TEMBA.

"Pasang Tembarekin. Honak 1980an Martin Zabaletarekin Everest gailurra igo zuen".

5. PUMORI.

"Pumori mendia, oroitzapen tristeak baina mendi polita".

6. OROIGARRIA.

"Iaz Pumorin gelditu ziren lagunei beheko kanpoan eskaini eta jarri diogun oroigarria".

7. SENIDEAK.

"Pumoriko oinarrizko kanpoan, iaz han gelditu ziren lagun familiarakoak".





8. UMOREA.

"Kala Patar (5.545 m.) gailurra. Everest handia atzean dela umore onarekin".

9. EGUN BAT!

"5.000 metrotara, egun batez eguraldi txarra".

10. UMEAK.

"Nepalen asko eta asko ikusten den jeneroa: umeak".

11. COCA COLA.

"Lama batzuk Coca Cola edaten".

12. LAU NESKA.

"Hiru krabelin eta larrosa bat".



ADITUAK

Beldur diet. Konturatu naiz beldur diedala. Adituei. Beti egoten da dena oso garbi duen adituren bat, ikasia dena, argia eta —ustean— trebatua. Harrigarriak dira. Adituak izan ditugu, adibidez, errotondekin bueltaka. Duela zenbait urte, Loiolabidean *zerbait* egiten hasi ziren. Errotonda itxia eta borobila jarri beharrean —errotonda normala, alegia—, forma eta funtzionalitate bitxiak zituen hura aurkitu genuen. Adituren baten hausnarketa sakonaren ondoren erabakiko zen horrela egitea. Seguru. Beti egoten da. Beti dago adituren bat edozeren inguruan hausnartu eta erabakitzen duena, zalantzarik gabe, irtenbiderik egokiena. Besteok inondik inora ulertu ez arren.

Errotonda antzeko hura, azkenean, eta sortutako nahasteen ondoren, *normaldu* egin behar izan zuten. Errotonda borobila eta arrunta egin behar izan zen.

Aurreko batean, leku beretik pasatzean, errotonda berriro aldatzen ari zirela ikusi nuen. Zer pentsatu ez nekiela geratu nintzen. Zer egingo ote zuten orain? Zer erabaki ote zuen adituren batek? Beste konponbide magikoren bat? Seguru nago izango dela arrazoi sakonik eta hobe beharrez ari direla. Benetan diot. Nik ez ditut, gainera, trafikoa- ren sotiltasunak ezagutzen. Eta adituek bai. Baina ikusitakoak ikusita...

Sarritan sinestezina da. Ikusi ezean ezingo nituzke zenbait gauza sinetsi, Santo Tomas famatu hura bezala. Baina ikusi ditut. Horregatik naiz beldur. Igogailu baten kontua datorkit burura, Paulo VI-n bertan gertatua. Bost pisuko eraikin batean igogailua jartzea erabaki zuten, ez baitzeukaten. Proiektua egin eta istorioarekin hasi ziren. Bertako familiariek denboraldi bat egin beharko zuten etxetik kanpo, eskailerak eta guzti berri behar zituztelako. Langileek proiektua ikusi eta berehala konturatu omen ziren planoak ez zirela guztiz egokiak, eta hala adierazi omen zuten. Baina adituren batenak zirenez, aurrera egin zuten azkenean. Igogailurako zuloa egin zuten, eskailerak berriro eraiki... Halako batean, igogailua iristean, ez zela kabitzen ohartu ziren. Ez zela kabitzen! Neurriak gaizki hartuta omen zeuden hasiera-hasieratik. Azkenean uste baino askoz denbora luzeagoa egin behar izan zuten familiariek etxetik kanpo. Broma ederra.

Eta Paulo VI-tik atera gabe, uste dut esan daitekeela Azpeitiko auto-irtenbiderik kaskarrenetakoa Juantxo Txiki taberna aurrekoa dela. Sarritan ez da ezer ikusten eta ez dago batere ispilurik laguntze-

ZER DA ADITUA?

Arlo batean egin daitezkeen akats guztiak egin dituen

ko. Denda ugari dago hor inguruan, eta askotan egoten dira autoak bigarren ilaran. Hatzak gurutzatu eta iritzira irten behar izaten da orduan. Auzoko eraikin berriak egitean, Harzubia aldera bide bat ireki zen. Primeran. Irteera hura askoz hobea zen! Baina ez: Harzubirako noranzkoa, nahiko zabala zen arren, debekatu egin zuten. Eta berdinetan gaude. Edo okerrago, orain handik sartzen direnak ere betiko irteera zoragarritik atera beharko direlako. Hor ere, zalantzarik ez, izango da arrazoirik: agian Landetatik datorren zirkulazioa arintzeko egingo zuten. Edo auskalo. Baina ez da erraza ulertzen.

Amaigabeko istorio sorta egin daiteke honelako hari batetik tira eginez gero. Baina ni txikia naiz, ez dut zer eginik adituen aurrean: ezin ditut ulertu. Baina bai jasan.

Zer egin nezake? Errezatzen ikasi beharko nuke. Agian.



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.	
							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

ABENDUAK 2 (astelehena)

● **ERAKUSKETA.**

Urolaldeko Artisten Lanen XXI. Erakusketa. Abendua-
ren 20a arte irekita izango da.
Astegunetan 18:00etatik
20:00etara irekita izango da.
Antxieta Etxean.

ABENDUAK 5 (osteguna)

● **BERTSOLARITZA.**

Bertso Parranda 2002, Goxu-
be eta Urrustil taldeak. Ernia-
rraitz Bertsozale Elkarteak
antolatuta. Urtzi tabernan.
23:00etan.

ABENDUAK 10 (asteartea)

● **MENDI-PROIEKZIOA.**

*'Action Directe' bide mitikotik
Kanadako laban handira.* 2000 mendi-proiektzioa. Hiz-
lariak: Iker eta Eneko Pou.
Lagun Onak Mendi Bazkunak
antolatuta. 20:30ean. Enpa-
ran Dorretxean.

ABENDUAK 11 (asteazkena)

● **MENDI-PROIEKZIOA.**

Zailtasunezko alpinismoa
mendi-proiektzioa. Hizlariak:
Mikel Saez de Urabain eta
Carlos Vieira. Lagun Onak

Mendi Bazkunak antolatuta.
20:30ean. Enparan Dorretxe-
an.

ABENDUAK 12 (osteguna)

● **GURASOEN TXOKOA.**

*Haurren garapenean sor-
tzen diren kezkek, beldurrak,
amets gaiztoak, esfinterren
kontrola, lagunarteko arazo-
ak eta abar* gaiari buruzko hit-
zaldia. Hizlaria: Arantxa
Brey, psikologoa. Hitzaldia 3-
12 urteko haurren gurasoei
zuzenduta dago. Gurasoen
Txokoa III programaren bar-
ruan eta euskaraz izango da.
15:15ean. Ludotekan.

● **MENDI-PROIEKZIOA.**

*Annapurnako eta Everesteko
'trekking'-ak.* 2002 mendi-
proiektzioa. Hizlaria: Benan-
txio Irureta. Lagun Onak Men-
di Bazkunak antolatuta.
20:30ean. Enparan Dorretxe-
an.

ABENDUAK 14 (larunbata)

● **ARETO FUTBOLA.**

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-
Nevada Venta Berri. Kiroldel-
gian. 16:30ean.

● **FUTBOLA.**

Hirugarren Maila: Lagun
Onak- Reala B. Garmendi-
pen. 17:00etan.

ABENDUAK 15 (igande)

● **BATZAR NAGUSIA.**

Lagun Onak Mendi Bazkuna-
ren Batzar Nagusia. Gaiak:

liburue

Nerea Aranburu



● **EGILEA:** V.C. An-
drews ● **ITZULPENA:**
Aitor Arana ● **ARGITA-
LETXEA:** Gero ● **IZEN-
BURUA:** 'Ganbarako
Loreak' ● **GENEROA:**
Eleberria ● **ORRIALDEAK:** 399 ● **SAL-
NEURRIA:** 14 euro

**'FLOWERS IN
THE ATTIC'
EUSKARATUA**

Aitor Arana, Urrestillan
bizi den idazle legaz-
piarrak Virginia C. An-
drews-en *Flowers in the
attic* nobela arrakastatsua
euskaratu du. Aranaren hit-
zetan, "gustura irakurtze-
ko liburua da, irakurlearen
gehiengoari hutsik egingo
ez diona eta guztiz gomen-
dagarria". Bere lau seme-
alabaketxe erraldoi batean
giltzapetzen dituen ama
baten istorioa kontatzen
da. Lau seme-alabek grina
eta arriskuz beteriko bizi-
tza iluna eta bitxia izango
dute. 14 urtetik aurrera ira-
kurtzeko liburua da. "Bai-
na nire adineko hainbat la-
gunei utzi diet, eta haiek
ere istorioak harrapatu di-
tu", dio Aranak.

aurtengo ekintzen azalpena,
diru kontuak, Xoxoteko ater-
bea eta 2003ko ekintzak. On-
doren bazkaria. Lehen deial-
dia 12:00etan da eta bigarre-
na, berriz, 12:15etan. Lagun
Onak M.B.ren elkartearen ber-
tan.

● **BIDEZKO MERKATARITZA.**

Bidezko merkataritzara zu-
zendutako denda irekiko da.
Elikagaiak, artisaua eta ehun-
gintza. Santiago kalean, Cari-
tas-eko lokalean. Parrokiko
Mixio Taldeak. Urtarrilaren 5a
arte irekita izango da. Igande-
tan 12:00etatik 14:00etara
eta astegun eta larunbatetan
17:30etatik 20:00etara.

ABENDUAK 20 (ostirala)

● **BERTSOLARITZA.**

Lagun Onak Mendi Bazkuna-
ren XXVIII. Bertso Jaialdia.
Gai jartzailea: Xebaxtian Li-
zaso. Bertsolariak: Peñagari-
kano, Loidisaletxe, Irazu, Jo-
kin Uranga, Leire Ostolaza
eta Beñat Lizaso. Lagun
Onak Mendi Bazkunak anto-
latuta. 22:00etan. Soreasu
antzokian.

ABENDUAK 21 (domingua)

● **SANTO TOMAS EGUNA.**

Txorixo eta talo postuak pla-
zan eta barazki eta fruituen
azoka berdura plazan.

ABENDUAK 24 (asteartea)

● **OLENTZERO.**

Egin publizitatea

uztarria-n

943 15 03 58

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

ODRIOZOLA ARDOAK
Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 850 011
AZKOITIA
Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.: 15 13 16
AZPEITIA

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker



BERTSO PARRANDA FINALA. Erniarraitz Bertsozale Elkartek antolatu duen 'Bertso Parranda 2002'-ko azken saioa izango da Lagun Onak M.B.ren tabernan. Inuxente egunari hasiera paregabea emateko parada izango da bertan. Bi talde ariko dira bertsoan, eta bi talde hauek aurretik Azkoitian eta Zestoan izandako finalurrekoetan sailkatuak izango dira.

Euskal presoek eskubideen aldeko Olentzero. Presoen Eskubideen Aldeko batzordeak antolatuta. Abesbatzek ere irtingo du beren kasara.

Presoen Eskubideen Aldeko Batzordeak antolatuta. 19:00etan. Bariantean.

ABENDUAK 27 (ostirala)

● **KONZENTRAZIOA.**
Euskal presoek eskubideen alde maingore ilada. Euskal

● **DANTZA ETA MUSIKA.**
Ikastaro amaiera dantza eta perkusio emanaldiarekin. Ondoren sukaldaritzakoek mokadua. Zapo Txokon. 20:00.

ABENDUAK 28 (larunbata)

Zine Klubeko filmak

- **'EL PABELLON DE LOS OFICIALES'.** Francoise Dupeyron-ek zuzendua. Abenduaren 13an (ostirala, 21:30). Soreasun.
- **'STUART LITTLE 2'.** Abenduaren 23an (astelehena, 17:00). Soreasun.
- **'GHOST WORLD'.** Terry Zwigoff-ek zuzendua. Abenduaren 23an (astelehena, 21:30). Soreasun.
- **'MOMO'.** Euskaraz. Abenduaren 26an (osteguna, 17:00). Soreasun.
- **'EN TIERRA DE NADIE'.** Damis Tanovic-ek zuzendua. Abenduaren 26an (osteguna, 21:30). Soreasun.
- **'DORAEMON'.** Euskaraz. Abenduaren 27an (ostirala, 17:00). Soreasun.
- **'MULHOLLAND'.** David Lynch-ek zuzendua. Abenduaren 27an (ostirala, 21:30). Soreasun.
- **'LILO AND STITCH'.** Abenduaren 28an (larunbata, 17:00). Soreasun.
- **'EL EMPLEO DEL TIEMPO'.** Laurent Cantet-ek zuzendua. Abenduaren 28an (Larunbata, 21:30). Soreasun.
- **'SPIRIT'.** Abenduaren 30ean (Astelehena, 17:00). Soreasun.
- **'BATTLE ROYALE'.** Kinji Fukasaku. Abenduaren 30ean (Astelehena, 21:30-ean). Soreasun.

ABENDUAK 31 (asteartea)

- **MENDIA.**
Aizkorriara goiz irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. 07:00etan. Plazatik irteera.
- **ATLETISMOA.**
II. San Silvestre lasterketa. Iraurgi Atletismo Taldeak antolatuta Udaleko Kirol Batzordearen laguntzaz. Lasterketarako izen-ematea herriko ikastetxeetan edota Kiroldegian egin beharko da. Izena ematea doanekoa da. Eskolartekoak 10:30ean izango dute irteera eta kadete mailatik gorakoek 12:00etan izango dute irteera. Kadete eta jubenilek 4,150 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta helduek 8,3 kilometrokoa. Bukaeran sari ugari zozketatuko da lasterketan parte hartzen duten lagun guztien artean. Irteera eta helmuga plazan izango da.

URTARRILAK 1 (asteazkena)

- **MENDIA.**
Erlora mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. 09:00etan. Irteera plazatik.
- Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:
- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra (Azpeitia)
 - 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
 - uztarria@topagunea.com

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide 25 - AZPEITIA

TABERNA

Tel.: 943 151086
Enparantza Nagusia

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Oramendi
Bertsu Demba

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

ZALDIKO

SALBE 15 - 943-151275
ESTETIKA ETA OPARIAK

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62



“Uso mezulayena gaixotasune da afiziyu baño gehiyo”

Uso mezulayek dauzke Jose Ignacio Albizurik. Hainbat txapelketetan parte hartu du eta zenbait sari ere jaso ditu. Euskal Herriyen federaziyoik ez eta Espainiako federaziyuen daude. Baino uso mezulayekin ibiltzen diren gipuzkoarrak Miarritzen biltzen dire.

• Zenbat uso dauzkezu?

Orain 180 bat uso edukiko ditut.

• Nolakuek dire lehiaketak?

Usuek leku bati en soltatu eta handik uso bakoitzek bere usotegire etorri beher du. Zain egoten gera usuek noiz etorriko, erreloju bat izeten degu eta usuek prezintatutako goma bat. Usue iristen dani en gomie errelojuen jarri eta denborie automatikoki markatzen du errelojuak.

• Nola entrenatzen dituzu usuek?

Lehenengo suelta Lasao en egiten degu. Eta hortik pixkenaka-pixkenaka Zumaiye, Getaiye, Donostiye eta gero Hendaire, Baiona...

• Nola etortzen dire?

Hego haiziekin baju-baju, beheko kaminuek ikutuez eta ipar haiziekin, buztan atzetik putz egiten diyobenez altu etortzen dire, hobeto. Hego haiziekin ez dire ondo ibiltzen.

• Ehiztaye bildurrik bai?

Ehize itxite dagoela lasai bota leizke. Neu ehiztaye naiz, ezta erreza entendi-

tzen... Neu paseko usuek botatzen eta neriek ezin zaindute. Baino honek ehiziek baino gehiyo tirtetzen dit. Gaixotasune da afiziyu baino gehiyo.

• Ze arraza dauzkezu?

Uso mezulayek dauzket. Urtien poderiyo z nahasten juten zera usuek, eta mejozan, pisu gutxi, hego handiyo, orientaziye gehiyo... danetik pixket.

• Faboritok ba al dezu?

Faborituek izeten dituzu. Zenbat eta urrutiyo bialdu etortzen dijudten bezela, hayek egiten debe beti ere ilusiyo gehiyen.

• Ezautzen al dituzu usuek?

Bai, baite hegan dabiltzela ere; beteranuek bai, behintzet.

• Zer ematen debe?

Satisfaziye eta disgustue besterik ez. Diru alde-
tik, gastue.

• Izenik ba al daukebe usuek?

Bai, uso batzuk izena jarrite daukebe: andriena, semiena eta hala-mouzko batzuk. Beste bat ere ba-

nuen, faboritue, Olano izenakin; hare ere erretiratu zan ziklistie bezelaxe.

• Ordu asko kenduko dizute ba usuek?

Ordu asko beher dire usoteye ondo edukitzeko. Geu baino hobeto zaindute daude. Kirolayek bezela die: pastillak, bitaminak... eman beher dizkiyezu”

Nerea Uranga

TXIKITEKO AMETSA. “Makiñe bat amets banitun txikiten nik. Hola, baten bat esateko, ba hauxe: familiye eduki ta pozik bizitzie”

ZATOZ GURE


ERAKUSTOKIA IKUSTERA



GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



www.lasao.com



SPORTS WEAR

Case Airport 1

Tel: Fax: 943 81 11 11



Babesa
gazte moda

GABONETAN ERE DESBERDINDU ZAITEZ!!!

Xanjuandei arruzen gatzauden!

Lisbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369